

BIDE-SEGURTASUNA ADINEKO PERTSONENTZAT

eman bidea bizia

BIDE-SEGURTASUNA ADINEKO PERTSONENTZAT
e m a n b i d e a b i z a r i

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA
Herrizaingo Sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Viceconsejería de Interior
Dirección de Tráfico

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria - Gasteiz, 2004


aurkibidea

0	SARRERA	11
1	ADINEKO PERTSONEN EZAUGARRIAK	17
2	ASMOAK ETA HELBURUAK	21
3	PLANTEAMENDU METODOLOGIKO NAGUSIAK	25
4	PROPOSAMEN METODOLOGIKOAK	
	4.1. Eskema nagusia	33
	4.2. Edukiak	34
	4.3. Lan metodologia	39
	4.4. Beste talde batzuekin egin daitezkeen ekintzak	43
	4.5. Talde-lanerako fitxak	44
	4.6. Hezitzaileentzako oharrak	55
	> Antolatze erak	55
	> Antolatze bete beharrekoak	56
	> Alderdi logistikoak	58
	> Saioetan kontuan hartzeak	59
5	MATERIALAREN EGITUBA	65
	5.1. Aurkezpen orokorra	65
	Bideoak	66
	> 1. bideoa _ Autobusean I	66
	> 2. bideoa _ Autobusean II	68
	> 3. bideoa _ Beti biturkorrak	69
	> 4. bideoa _ Ez gurutzatu kalea garaia baino lehen	71
	> 5. bideoa _ Laguntza eskatu	72
	> 6. bideoa _ Beti espaloia ez badago, ezkerretik	73
	> 7. bideoa _ Bidean, autoak espaloitik joaten dira	74
	> 8. bideoa _ Gidatzerakoan, ez distraitu	76
	> 9. bideoa _ Kontuz autoan sartu eta irtetea	77
	> 10. bideoa _ Botikarik ez, gidatuz gero	78
	> 11. bideoa _ Errepasoa egiteko saioa	80
	5.3. Bideoen eduki nagusiak	83
	5.4. Beste ekintza osagarri batzuk	87
	5.5. Material osagarriak	88

6	BIBLIOGRAFIA	95
---	--------------------	----



Sarrera



Gu bizi garen munduan gero eta konplexutasun handiagoak agertzen dira. Ondorioz, jende asko, presaren mende, gero eta bizkorrago bizi da. Komunikabideek, mass-mediak, bizimoduak, lanak, tira-birak, mugitu beharra, erasokortasuna sortzen dute. Horrelako giroa ez da egokiena izaten zenbait gizatalderentzat, gainontzekoek dituzten baldintzei eta lehiatzeko gaitasunari eusteko behintzat. Eta bereizketa hori are larriagoa da zirkulazioaz ari garenean. "Aukera gutxiago" duten gizatalde horietako bi adinean behera eta gora daudenek osatzen dute: haurrek eta adinekoek.

Material honen ezaugarriak eta helburuak kontuan hartuta, hirugarren adina deritzon horretan dauden pertsonen arazoak jorratuko ditugu nagusiki. Sarritan, istripuen berri izaten dugunean, bertako protagoniestetako bat adinekoa izaten da: batzuetan oinezko gisa doala, beste batzuetan autoa gidatzen, edo beste garraiobideren bat erabiltzen ari dela. Hain da larria era horretako istripuen eragina, ezen horixe baita, aspalditik gainera, gure kale eta bideetako zirkulazioaren egokiera zaintzeko arduraren duten herri erakundearen kezka nagusietako bat. Eta kezka horri erantzun nahian prestatu du Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Trafiko Zuzendaritzak material honen argitarapena. Aurrerago zehaztuko ditugu lanaren helburuak.

Material honek, arestian esan dugun bezala, hirugarren adinekoekin jarduteko heziketarako zenbait proposamen dakartza, eta gainera, proposamen horiek ikuspuntu metodologiko jakin bat hartu dute ardatz gisa. Ardatz horrexek bideratzen du bere egitura osoa, bai idatzitakoa eta bai ikus-entzunezkoa.

Lanerako proposamenek abiapuntua izan nahi dute, bide bat, ez hitzez hitz hartzeko gidaliburua. Izan ere, Trafiko Zuzendaritzak, lan honen bidez, zera espero: ekinaren ondorioz, hemengo proposamenak aberastea, garatzea, eta, oro har, "adineko lagunekin" arituko direnen lanarekin era dinamiko batean aldatzea.

Bi multzotan sailkatu dugu materiala: bata idatzizkoa da eta bestea ikus-entzunezkoa. Idatzizkoan ematen dira lana jorratzeko "giltzak". Ikus-entzunezkoa bestearen euskarria da, heziketa-saioetarako elementu dinamikoa.



Material honetan honako atal hauek sartu dira:

Adinekoen ezaugarriak

Lehen atalean, hirugarren adinekoek izaten dituzten berezitasun batzuei buruzko zenbait ohar jaso ditugu; batez ere, zirkulazioarekin zerikusia duten "arazoak" dira. Horrez gainera, adinekoek heziketa eta komunikazio testuinguruetan izaten dituzten zenbait "portaera" ere aipatzen dira.

Asmo eta helburuak



Atal honetan, material honetan datozen ekintzak proposatzeko orduan, Trafiko Zuzendaritzaren asmoa zein den azaltzen da. Bestalde, aurrerago azalduko diren ekintzen helburuak (heziketa arloko helburuak) zehazten dira.

Atal honek jarduera guztien erreferentzia-marko izan nahi du: material honen bidez, hezitzailei tresna bat eskaini nahi diegu beraien ekintza guztiak testuinguru batean txertatzeko.

Planteamendu metodologiko nagusiak



Atal honetan, zenbait gogoeta teoriko egiten dira eta adineko pertsonekin lan egiteko orduan kontuan hartu behar diren oinarri metodologikoak eskaintzen ditugu. Kotsularako materiala da, batik bat, ez da derrigorrezkoa ekintzak abian jartzeko (hurrengo ataleko materiala bai, ordea).

Proposamen metodologikoak



Zenbait lan teknika eta lanerako eskema nagusia zehazten dira bertan.

Materialaren egitura. Edukiak



Atal honetan, materialaren egitura nagusia, egitura horren zergatia, bideoen gidoi literarioak eta materiala aberasteko proposamen batzuk sartu ditugu.

Asmoa, lehenago esan dugun bezala, material hau Bide Segurtasunerako heziketan lagungarri izatea da. Ekintza horiek gauzatzeko testuinguruak edo tokiak era askotakoak izan daitezke:


- _ Hirugarren adinekoen egoitzak.
- _ Jubilatuen klubak.
- _ Emakumeen sustapenerako zentroak.
- _ Gizarte etxeak.
- _ Erretiratuen elkarteak.
- _ Antolaturiko oporraldiak.
- _ Auzo elkarteak.
- _ Erretirorako prestatzeko ikastaroak.
- _ Autoeskoletako ekintza osagarriak.
- _ Hezkuntza soziokulturalerako zentroak.
- _ Helduen hezkuntzako eskolak.
- _ Irakasleen prestaketa ikastaroak (Bide Segurtasuna lantzen dutenak)
- _

Azkenik, materialaren erabilerak ematen dituen aukeren artean, hauxe nabarmendu nahi dugu: irakaskuntza arautuan ere erabilgarria izan daitekeela, testuingurua eta mamia egokituz gero.

Eta izango dira, gidaliburu honetan aipatu ez diren arren, material honetaz baliatzeko testuinguru gehiago ere. Hemen aipatu ez arren, toki edo inguru berrien proposamen guztiak ongi etorriak izango dira. Izan ere, material hau, Trafiko Zuzendaritzak jarritako helburuei jarraiki, gu zorretan utzi gaituzten adinekoen bizitza kalitatea eta Bide Segurtasuna hobetzeko ardura eta nahia duten pertsona eta erakundeen eskuetan jartzeko baino ez da prestatu.



Adineko pertsonen ezaugarriak




Proposamen zabal honetako oinarrietako bat adineko pertsonen ezaugarriak zehaztea da (beste bat alderdi metodologikoak lantzea da). Hauexek dira adineko pertsonen ezaugarrietako batzuk:

- _ Lan-bizitza amaitu dute baina kasu askotan, bizi-indar handiarekin ageri dira, eta pentsatzen dute, arrazoi guztiarekin, oraindik baliagarriak direla gizartearentzat.
- _ Bizitza luzean zehar pilatu duten "esperientzia-meta" daramate aldean eta esperientzia horri esker edozein modutan jasotzen dituzten eduki berriak bereganatzeko aukera dute.
- _ Sarri askotan, beraien gaitasun fisikoak mugatuta izaten dituzte, muga horien jabe ez diren arren. Horrek arazoak eragiten dizkie oinezko gisa edo auto-gidari gisa dihardutenean.
- _ Beraien esperientziaren bidez jasotako edukiak gizartearentzat probetxugarriak izatea nahi izaten dute. Hargatik, oso partehartzaileak izaten dira heziketa saioetan.
- _ Aurretiko esperientziak –berez interesgarriak denak– eta parte hartu nahi horrek bi ondorio kontrajarri ekar ditzake:
 - Oztopo bihur daiteke zuzenean beraiekin zerikusia duten zenbait edukiren aurrean (alegia, "dena dakitela" pentsa dezakete.).
 - Edo oinarri baliagarria izan daiteke lehengo ezagutza eta esperientzia "berriro eraikitze" Neurri handi batean, hezitzailearen eskuetan egongo da talde bakoitzean bi joera horietako zein nagusituko den eragitea.
- _ Bestalde, kasu askotan, beraien oroimena gutxitua egoten da, hargatik, ez litzateke oso zentzuzkoa izango heziketa-saioetan datu gehiegi ematea, zirkulazioarekin loturiko testuinguruetan nola jokatu behar duten azaltzerakoan.

Ezaugarri hauek guztiak uztarri bat sortzen dute, osagai metodologikoei hezurdura emango dien uztarrak: osagai metodologiko horien helburua heziketa eskatu duten "bezeroen" ezaugarrietara egokitzea baita.



Asmoak eta helburuak



Material honetan proposatzen den heziketaren asmo nagusia azaldu dugu jadanik sarreraren. Hala ere, pixkatxo bat zehatzago definituz gero, honela formulatu daiteke asmo hori:

Adineko pertsonen heziketarako osagaiak ematea, beraiek izan ditzaketen istripuak (beraiek eraginak, zein beraiek pairaturikoak) eragozteko orduan, beraiek ere beraien ardura izan dezaten. Hau da, bideen inguruan ibili behar duenean, gizatalde horrek dituen muga eta baldintzak ikusaraztea, eta jabeak hori sendotzea.

Asmo horren sorburua estrategikoa da: hirugarren adinekoen artean gertatzen diren istripuen tasa jaisten laguntzeko elementu bat gehiago izatea.

Asmoaren definizioan "jabekuntza sendotzea" dela asmoa esaten da, hargatik helburuak formazioaren, heziketaren, bidetik planteatzen dira ez informazioaren aldetik. Hurrengo atalean jorratzen dira Heziketa eta Informazioa bereizten duten osagaiak eta horrek dakartzan ondorio metodologikoak.

Guk proposatzen ditugun heziketa-saioekin lortu nahi ditugun helburu naqusiak hauexek dira:

- _ Zirkulazioari aurre egitean agertzen zaizkien arazoen funtsezko zergatiari eta ondorioei buruz gogoeta egiteko aukera ematea adineko pertsonei.
- _ Beraien muga fisikoen jabe izatea, muga horiekin nola jokatu jakitea eta bideetako segurtasunaren aurrean duten narriatze progresiboari aurre egitea. Horretarako arazoak aztertzea eta jarrera hartzea eskatzen duten egoerak aurkeztuzko dizkiegu.
- _ Bidean hartzen diren jokabideen zergatiak aztertzea, taldeak "eraturiko" ikuspuntu egokitik.
- _ Bideetako arazoak eta istripuak eragozteko moduak aztertzeko orduan jarrera aktiboak hartzea, eta istripuaren eragilea norberaren zein besteen zuzentzea eza izan daitekeela jabetzea.
- _ Zirkulazio-arauak aintzat hartuta ibiltzeak ez dakarrela berez istripuak eragozteak. Arauez gainera, badira bideetan beste elementu batzuk istripuak eragozteko kontuan hartu behar direnak.
- _ Heziketa-taldea osatzen duten lagunek honako hau egin behar dutenean jokabide egokia hartu dezaten prestatzea:
 - Autobusetara igo eta haietatik jaistea.
 - Autobusen aurrealdetik kalea gurutzatzea.
 - Autobusetako ateen ondoan joatea.

- Bideak oinezkoen pasabideetatik zeharkatzea.
- Semaforoetan bidea zeharkatzea.
- Errepideetatik ibiltzea.
- Aparkaturiko autoen artetik galtzadara irtetea.
- Garajeen ate aurretik igarotzea.
- Autoan sartzea eta irtetea.
- Segurtasun uhala jartzea.
- Gidatu behar denean, botikak hartzea.
- Kalea gurutzatzeko laguntza eskatzea, norberak bakarrik ezin duenean.


Zenbait materialetako edukietan ikus daitekeen bezala, bizi-kalitatearekin loturiko beste eduki eta helburu batzuk ere ageri dira:

- _ Elikadura orekatuaren aldeko jarrera, fruta eta barazki ugari hartuta.
- _ Garraiobide publikoak erabiltzea (ingurumenarekiko ardura erakusten duen jokabidea).
- _ Botikak norbere kontura ez hartzea.
- _ Irakurketaren moduko zaletasunei eusteak dakarren onura.
- _ Ariketa fisikoa eta paseatzea premiazoak direla jabetzea.

Eduki eta jarrera hauek bideetako segurtasunarekin loturiko egoerak aztertzeke oinarri gisa erabili daitezke eta, bestalde, bereizitako elementuak ere badira. Heziketako arduradunek baliatu egin behar dute eduki eta jarrera horiekin, lehenago aipaturiko Bide-Segurtasuneko helburuei koherentzia handiagoa emateko.



Planteamendu Metodologiko Nagusiak



Atal honetan, lehenago aipatu dugun moduan, ardatz metodologikoei buruzko zenbait gogoeta sartu ditugu gero egingo ditugun lan-proposamenak horiexetan oinarritzeko.

PERTSONENGAN OINARRITURIKO HEZIKETARAKO INFORMAZIOA

Heziketa modulu honen oinarria osatzen duten edukiak kontuan hartuta, bi estrategia orokor garatu daitezkeela uste dugu:

Informazioa estrategia metodologiko gisa

Hauxe izaten da ohikoena. Zenbait eduki transmititu nahian, hitz bihurtzen dira, gehienetan ikus-entzunezko baliabideen bidez, baina horiek erabiltzeko modua ez da komunikazio eredu bat izaten.

Formatu nahi duten pertsonak entzule bihurtzen dira, norabide bakarra duen komunikazio testuinguru batean: batek hitz egin eta besteek entzun egiten dute.

Jokabide horrek ondorio bat dakar: protagonismoa informazioa duen pertsonak hartzen du, ez taldeak.

"Informazioa" emateko egoeretan aztertu behar den beste kontu bat entzuten ari direnen jarrera izaten da. Oro har, salbuespenak salbuespen, entzuten ari denak aditutzat jotzen du hitz egiten ari dena, hargatik oso gutxitan jartzen du zalantzan hizlariak emandako edukia. Batez ere Bide Segurtasunaren moduko gaietan. Eta egoera hori kontrajarri egiten zaie aurrerago azalduko ditugun zenbait irizpideri (esate baterako, "eraikuntzari" aktibitatea eta komunikazioa eragiteari; edo heziketa hartu nahi duenaren esperientzian oinarritzeari). Ikaste prozesuetako oinarrietako batzuk mahai gainean jartzen ari gara, arian-arian.

Informazioan oinarrituriko egoeretan hauxe espero dute: informazioa jasotzen duten pertsonak, euren heldutasunari esker, berehala informazio hori euren jarreraren eremura moldatzen jakingo dutela. Eta zenbait kasutan beharbada, hala gertatuko da, informazioa ematen duenaren gaitasunagatik, komunikatzeko ahalmenagatik, entzu eekiko kidetasunagatik, gaiaren nguruan duten motibazioarengatik. Baina kontrakoa ere esan daiteke: gehienetan, informazioaren transferentzia hori ez dela gertatzen, gero eta gutxiago gainera, izan ere, gure gizartean informazioa gero eta azalekoagoa da, gero eta zailagoa gureganatzeko.

Heziketan oinarrituriko ereduak dira transferentzia hori gauzatzeko aukera ziurtatze duten bakarrak, besteak beste, horrelako ereduak testuinguru metodologiko egokia eragiten dutelako.

Bestalde, informazioan oinarrituriko ereduetan edukia da ebaluatzen dena, batez ere edukiaren hitzeko adierazpena.

Pertsonengan oinarrituriko heziketa, estrategia metodologiko gisa

Pertsonengan oinarrituriko heziketak pertsonaren aurretiko esperientzia hartzen du abiapuntutzat, hortik abiatuta "eraiki" ditzan eduki berriak. Eta hau bereziki garrantzitsua da jarrerak lantzerakoan. Eskuetan dugun arlo honetan, esate baterako, Bide Segurtasunaren aldeko jarrerak sortuko ditugu edo lehendik daudenak sendotu, baldin eta abiapuntua formatu nahi duten adinekoen esperientzietan oinarritzen badugu.

Hala eginez gero, ondorio metodologiko interesgarri bat eragingo dugu: heziketan parte hartu nahi duten pertsonen adierazteko gogoia eta partehartzea piztea.

Hain zuzen ere, partehartze horixe izango da jarrera eta ikuspuntu berriak "eraikitze" eta "aztertze" bidea. "Eraiketa" hori norbere jarrerak eta taldearenak kontrajarriz eragiten da. Hargatik, garrantzitsua da heziketa saioak diseinatzeko orduan, ariketa edo jarduna bultzatzen dutenak aukeratzea.

Hurrengo taulan ikus dezakegu zein ezberdintasun dagoen ohizko heziketa sistema baten eta pertsonetan oinarrituriko sistema baten artean, hau da pedagogiaren eta andragogiaren (gure proposamenaren) artean dauden berezitasunak nabarmenduko ditugu.

	PEDAGOGIAN	ANDRAGOGIAN
Heziketa hartuko duena	► Mendekotasunean dago. Hezitzaileak erabakitzen du zer, noiz eta nola ikasi eta berak erabakitzen du ikasgaia norberagatatu duten ala ez.	► Norbere buruaren jabe izatea du helburu. ► Auto-zuzentzailea da. ► Hezitzaileak bere autonomia eragiten eta bultzatzen du.
Hezi nahi duen pertsonaren esperientzia	► Balio gutxikoa da. ► Irakasteko metodoak didaktikoak dira.	► Baliabide aberatsa da hezteko orduan. Irakasteko motodoen artean arazoak eztabaibatzea da bat.
Ikasteko gogoia	► Jendeak haxe ikasten du; gizarteak ikastea nahi duena, ondorioz, edukia berdina da guztientzat.	► Jendeak zera ikasten du:jakin behar duena. Horrela, ikaste programak bizitzan duen aplikazioaren arabera antolatzen dira.
Ikasketarako orientazioa	► Informazioaz eta materiez jabetzea. ► Informazioaren arabera eta gaika antolaturiko curriculum.	► Ikaste esperientzia arazoetan oinarritzen da, horrela ikastetakoan etekin handiagoa ateratzen da.

Beraz, hor egin ditugun ezberdintasunak kontuan hartuta, guk proposatzen dugun heziketa motaren oinarritzko hipotesiak hauek dira:

- _ Guretzat heziketa da pertsona batek bere inguruaz, inguru horrekiko dituen harremanez, eta inguruaren ezaugarriez jabetzeko, inguruari eusteko edo hura aldatzeko gaitasunaz dituen pertzepzioetan eragiten den aldaketa. Kasu honetan, aldatu nahi dena adinekoen eta bideetako testuinguruaren" arteko harremana da.
- _ Pertsonaren "inguruaz" testuinguruaz ari garenean zera esan nahi dugu, "ekintzarako edo ihardunerako patroien multzoa"· patroiei horiek hitzez zein beste edozein eratan adierazi daitezke eta subjektuen ekintzetan eta subjektuek mantentzen dituzten rol sozialetan eta harremanetan ageri dira. Pentsa dezagun hirugarren adinekoengan zeintzuk diren bereizgarriak.
- _ Heziketaren diseinua egitea aukera pedagogiko jakin bat hartzea da, adinekoen eskuetan informazio multzoak, objektu erreal edo kulturalen multzo edo sistemak, giza harremanetarako sistema berrien deskripzioak edo giza rolen konfigurazio berriak jartzeko.
- _ Gure ustez ez dago heziketarako irizpide bakarrik, ildo lineal bat jarraitzen duen biderik edo mailaka eskalan gora igotzeko aukera ematen duen antolamendurik.
- _ Arlo kulturean jorratzen diren proiektuak, edukiak eta prozedurak inposatzea (horrelaxe programatu omen delako, hezitzaileak hala nahi omen duelako edo arauak horixe agintzen duelako) alde batera utzi eta giza-banakotasuna eta idiosinkrasia landu eta azaleratu behar dira.
- _ Testuetako edukiak buruz ikasteari utzi eta esperientzian oinarrituriko ikasketa bultzatu behar da, hau da, ikasketa "esanguratsua" bultzatu behar da.
- _ Berez heziketarako komenigarriak omen diren trebetasun eta gaitasunak inposatzea alde batera utzi eta hirugarren adineko pertsonen bizimodurako benetan interesgarriak diren helburuak lortzeko modua ekarriko dutenak landu behar dira.

Planteaturiko irizpideetan oinarrituta, proiektu honetan jorratu nah diren **ESTRATEGIA METODOLOGIKOETAKO BATZUK** hauek dira:

Arazoen konponbidea

Arazoak konpontzeko gaitasuna izaten da edozein heziketako helburuetako bat. "Ikasten ikastea" deritzogunaren oinarrietako bat da. Eta horrez gainera, kasu honetan, "arazoen konponbidea" ikasteko modu garrantzitsuenetako bat ere bada; hau da metodologia moduan hartzen dugu, adineko pertsonak, batzuetan arazoak izaten baititu ikasteko egoeretan. Hargatik, "arazoen konponbidea" lantzean, bere ikasketari testuingurua emateko eta partehartzeko aukera eskaintzen zaio.

J. W. Apps-ek honelaxe azaltzen du "arazoen konponbidearen" eta helburu gisa informazioa ematea duten ekintzen arteko ezberdintasuna:

"...gaitasun hauek behar-beharrezkoak dira aldaketa sozialerako, eguneroko bizimoduan moldatzeko, pertsonen arteko gatazkak konpontzeko, aisialdiaz baliatzeko, eta ingurugiroa zaintzeko.

Arazoak konpontzen ikasteko modurik onena arazo horiek beraiei soinekoan, testuinguruan, kokatzea da"

Arazoak konpontzeko landu behar diren trebetasunak bereizita aipatuko ditugu, ez bereziki arazoak konpontzen irakasten duten proiektuak egitea beharrezkoa deritzogulako, ezpada arazoen konponbidea hezkuntza-egoera askotako osagaia izaten dela azpimarratzeko.

Zoritxarrez, sarri askotan hezitzaileak tematiak izaten dira informazioa eta ekintzak transmititzeko orduan, eta ahaztu egiten zaie informazioa eta ekintza horiek hartu eta benetako arazoak nola konpondu irakastea eta zeregin horretan laguntzea dela kontua. Jendeak bere arazoak konpontzen ikasten duenean, askoz ere ikasketa sakonagoa, iraunkorragoa egiten du. Arazoei erantzuteko gaitasuna ematen dion prozesu bat ikasten duenean, askoz autonomoagoa izaten da aurrerago agertuko zaizkion arazoei aurre egiteko.

Interesa

Interesa ikasketa guztien oinarria da. Hainbat arrazoigatik sortu daiteke, baina heziketako orduan agertzen ez bada, prozesua ez da bide onetik joango.

"Hezkuntza ere —eta horren barruan heziketa— giza jarduerako lege nagusi horrexen menpe dago: interesaren menpe"

Interes mota desberdinak daude eta heziketako estrategian eta metodologian ere ondorio desberdinak dituzte.

Ikasketa esanguratsua

"Baldin eta heziketak psikologiaren eskakizunei aurre egin nahi badie eta helburuak eraginkortasunez bete nahi baditu, orduan ikaste prozesua 'esanguratsua' izateko moduan antolatu behar da, hau da, heziketak zentzua, balioa, arrazoi bat eman behar dio ikasi nahi duenari"

"Psikologia esperimentalak frogatu du ikaste-mailak ez daukala ia inongo zerikusirik errepikapen kopuruarekin, eta funtsezkoena 'egoera edo arazoaren' eta konponbidearen arteko 'zubia' aurkitzea dela"

A. Clausseren bi aipamen horietaz baliatu gara "adierazgarritasunaren" kontzeptua azaltzeko eta honek edozein ikasketan duen eginkizuna aurkezteko. Ikusten den moduan, arazoaren konponbidearekin, interesarekin eta partehartze aktiboarekin (kanpotik zein barrutik sortzen den partehartzearekin) lotuta dagoen kontzeptua da.

Baina zer da "ikasketa esanguratsua"? Azalpen argi eta deskriptibo bat emateko, bi zutabeko taula bat atondu dugu: lehen zutabea ikaste esanguratsuaren deskripzioa ageri da; bigarrenean, haren oinarri zientifiko-pedagogikoa.

IKASTE ESANGURATSUA

Definizio deskriptiboa	Oinarri epistemologikoa
☐ Ikaste esanguratsua da halako ikaste prozesu bat non pertsonak.	☐ Norbere (baitago) jarduerak.
☐ dakienetik abiatu eta.	☐ Aurretiko kontzeptuak.
☐ hezitzaileak informazio berria aurkezteko darabilen erari esker	☐ Bitartekari eginkizuna.
☐ berriro antolatzea baitu.	☐ Gatazka kognitiboa.
☐ munduari buruz duen ezaguera.	☐ Eskema kognitiboa.
☐ dimentsio berriak aurkitzen baititu.,	☐ Menpeko zein gainetik integrazioa.
☐ eta ezaguera horiek beste egoera edo errealitate batzuetara egokitzea baititu.	☐ Funtzionaltasun kognitiboa.
☐ eta hura azaltzen duten printzipio eta prozesuak aurkitzen ditu.	☐ Adierazgarritasun logikoa.
☐ eta horrela hobetu egiten du bere ezaguerak antolatzeko gaitasuna.	☐ Ikasten ikastea.
☐ heziketaren barruan edo heziketatik kanpo, beste esperientzia, gertakari, ideia, balore, eta pen tsatze-prozesu batzuei aurre egin behar dienean.	☐ Adierazgarritasun psikologikoa.

Partehartze aktiboa

Pertsona helduen ezaugarrietako bat da hau ere: partehartzeko premia, bizitzan izandako esperientzian oinarrituta, norbere ikuspuntuak emateko beharra.

Heziketarako ariketen diseinuan behar-beharrezkoa da partaideen partehartzea erraztuko duten bideak finkatzea.

Talde-lana iruditzen zaigu partehartze hori gauatzeko egiturarik egokiena.

Ohar bat: kontua ez da taldearen egitura zein den, talde-lanari "bizi-heziketa" emateko eratzen den prozesua nola gauzatzen den baino.

Bestalde, talde-dinamikak talde-lana gauatzeko eta eragiteko teknika eta egiturak eskaintzen dizkigu.

Eta partehartzearekin eta talde-lanarekin batera, ikastea ahalbidetzen duen beste faktore bat adineko pertsonen bere ikastearen emaitzen berri emateko izaten duten premia ageri zaigu. Hona bada:

Ikasitakoaren berri ematea


Partehartzeko beste modu bat da. Hirugarren adinekoen psikologiari erantzunez, bere heziketan parte hartzeko modu bat ikasitakoaren berri ematea da.

Hezi nahi duen taldeak partaide bakoitzaren eta azpitaldeen (heziketako ekitaldietako batzuk azpitaldeka egingo baitira) ekintzak eta ondorioak entzun eta aztertuko ditu.

Egindakoaren berri ematea da azken urratsa benetako ikaste esanguratsuan, izan ere, egindakoaren komunikazio sozialaren bidez lortzen baitu ikasitakoak bere funtzionaltasuna, eta horixe baita ezaguera berriak hizkuntzaren eremura egokitze bideetako bat.



Proposamen Metodologikoak



4.1

Eskema nagusia

Lan-proposamena malgua eta zabala da eta 11 lan-saioren inguruan gauzatzen da:

- _ 10 saio arazoan azterketari eta konponbideei eskainiko zaizkie.
- _ Eta azken saioa taldean eginiko lana berriro ikusi eta finkatzeko erabiliko dugu.

Lehen 10 saioak ikus-entzunezko euskarri labur batzuen laguntzaz aritzeko ekitaldi laburrak dira. Laburrak dira, oro har, heziketa jaso nahi duten gizakien adinak eta baldintzek horixe gomendatzen dutelako.

Ikus-entzunezko dokumentuek talde-lana zirikatze edo eragiteko helburuarekin egin dira. Dokumentu guztietan zirkulazioarekin loturiko egoera edo arazoak aurkezten dira. Taldeak egoera edo arazo horiei konponbideak aurkitzea eta aukera guztiak aztertzea da espero duguna.

Azken saioa dena berrikusteko izango da, alegia, aurreko 10 saioetan aztertutikoa sendotzeko edo finkatzeko ahalegina.

4.2

Edukiak

Saioetan jorratuko diren edukiak hirugarren adinekoen istripuak eragiten dituzten zergatiak kontuan hartuta prestatu ditugu. Hona hemen, saioka antolatuta:

1. SAIOA

- _ Espaloitik jaitsi eta autobusari, erabat geratu aurretik, bidera irteteak dakarren arriskua aztertzea.
 - Hauexek dira arriskua eragin dezaketen bi faktore nagusiak: autobusak karrozeriatik kanpo dituen elementuak; eta autobuseko gidariak eskuinaldea ondo ez ikustea.
- _ Geratuta dagoen autobusaren aurretik bidea gurutzatzea.
 - Geratuta dagoen autobusak, bidea gurutzatu behar duen pertsonaren ikuspena galarazteaz gainera, autobusaren atzetik edo atzeko bidegurutze batetik etor daitezkeen ibilgailuen kontrola ere eragozten du.

2. SAIOA

- _ Ez autobusera igo edo handik jaitsi harik eta autobusa erabat geldí egon arte.
 - Autobus batzuk maila txiki batzuk izaten dituzte atepean. Zenbait gidarik, batzuetan, atea bizkorregi irekitzen du. Horrelakoetan, autobusetik jaistea, edozeinentzat, akrobazia arriskutsua izan daiteke. Eta zorigaitzari ate joka ibiltzea izan daiteke pertsona hori adinekoa eta eragozpen fisikoduna bada edo urduritasunak eta presak eraginda jaisten ahalegintzen den laguna bada.
- _ Autobusetan, ez sekula joan atearen kontra jarrita.
 - Ateak ezustean eta bat-batean ireki daitezke. Gainera, ateetako pieza mugikorrek ezusteko ederrak eman ditzakete.

3. SAIOA

- _ Oinezkoen pasabideak gurutzatu aurretik, eskuinera eta ezkerrera begiratu ibilgailuren bat datorren jakiteko.

- Ez da nahikoa oinez doanak horrelako pasabideetan lehentasuna duela jakitea. Zirkulazioan beste pertsona batzuek ere parte hartzen dute eta kontuan hartu behar dira: izan ere, beharbada ez dira ondo jabetu oinezkoen lehentasunaz, edo ez dakite gizabidea zer den, edo besterik gabe, une horretan arreta galdu dute.
- Funtsezkoa da gauza horiek gogoan izatea, eta, batez ere, erreflexuak eskastuta dituztenek ez dituzte sekula ahaztu behar. Dena den, erreflexu faltagatik baino gehiago, askotan, adinekoek euren eskubideak errespetarazteagatik gurutzatzen dituzte pasabideak, autoak etorri zein etorri ez, beraiekin begirunerik ez dagoela, eta ez dituztela kontuan hartzen pentsatzen baitute. Ondorioz, era arriskutsu batean aldarrikatzen dute beraien eskubideekiko errespetua.

4. SAIOA

_ Semaforoaren bidez arauturiko pasabideak noiz zeharkatu: baimena ematen duen argi berdea pizten denean baino ez.

- Ez sekula gurutzatu pasabidea oinezkoen semaforoa gorri dagoenean, beste batzuek pasatu arren (nahiz eta ez dagokien unean pasabidea gurutzatzen ari diren horiek asko izan, eta horregatik babestuago gaudela edo ibilgailuak geratu egingo direla pentsatu).
- Ez gurutzatu, ezta ibilgailuen semaforoa gorri jarri dela konturatu garenean ere. Eta are gutxiago laranja kolorean jarri dela ohartu garenean. Semaforo gorria norabide batean datozen ibilgailuentzat izan daiteke baina, beharbada, ez beste alde batetik datozenentzat (bidegurutzeetatik, aparkalekuetako irteeretatik.).
- Oinezkoen semaforo berdeak keinuka edo dirdiraka hasi eta laster gorri jarriko dela esaten digunean, ez sekula gurutzatu. Jokabide hori hartzea oso garrantzitsua da mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzat. Ezin dugu pentsatu ibilgailuak gidatzen ari diren guztiek gizabidez jokatuko dutela. Gainera, hainbat errei dauzkaten errepideetan, hainbat ibilgailu egoten dira bata bestearen aldamenean, irteteko prest, ondorioz, ezker aldean edo eskuinaldean beste auto bat duen autoak beharbada ez du ondo ikusten oinezkoen pasabidetik norbait datorren.

5. SAIOA

_ Seinalaturiko pasabiderik ez dagoen leku batean bidea gurutzatu behar denean, edozein eragozpen edo ondoez edukiz gero, laguntza eskatu.

- Eragozpen hori norberaren osasunak eragin dezake (bizkortasunik ezak, ikusmen eskasak, gehiegizko pisuak.) edo zirkulazioaren egoerak (dentsitate handia, zirkulazio azkarregia, eguraldi eskasa). Ildo honetatik, zera nabarmendu nahi dugu (bideo-zintan egiten den bezala): guk uste dugun baino jende jator gehiago dagoela.
- Bestalde, beti dugu aukera, eta gogoratzea komeni da, udaltzainengana edo ertzainengana laguntza eske jotzeko, horretarako ere badaude, eta gainera, horrelako laguntzek zentzua ematen diote zerbitzu publikoa eskaintzeko sortu diren erakunde horiei.
- Horrez gainera, garrantzitsua da adinekoek, ohiko irteerak egin behar dituztenean, seguru joateko zein ibilbide egin behar duten pentsatzea (nondik nora joan behar duten, seinalaturiko pasabideak eta semaforodunak non dauden).

6. SAIOA

_ Beti espaloitik ibili behar da (dagonean, behintzat).

- Batzuetan, egia da, ez da erraza izaten espaloitik joatea (jende gehiegi doalako, askotan jendea presaka dabilelako; batzuetan bizikleta edo irristailuekin ere egiten dugu topo.). Batzuetan, horregatik guztiagatik, espaloia utzi eta errepidetik joateko gogoia sortzen da, batez ere, pazientzia gutxi dutenen artean. Halako jokabidea duen oinezko bati eragozpen fisikoren bat gehituz gero, istripua eragin dezakeen egoera klasiko bat izango dugu.
- Zenbait kale, bide eta errepidetan ez dago espaloirik. Halakoetan, oso garrantzitsua da oinezkoen doan galtzadaren ezker aldean erabiltzea. Eta galtzadatik joan behar dugunean, beti kontu handiarekin ibili behar dugu, batez ere, iluntzen ari denean, edo, eguraldiagatik, behar den moduan ikusten ez denean. Jokabide hori edozeinentzat da garrantzitsua, eta are garrantzitsuagoa denbora-librea eta paseatzeko gogoia izaten duten adineko pertsonentzat.

7 SAIOA

_ Espaloitik goazenean, kontuz garajeetako eta tailerretako ate paretik igarotzerakoan, bat-batean, gauza handirik ikusten ez duten ibilgailuak agertu baitaitezke bertatik.

- Ibilgailu batzuk, lurpean dauden garajeetatik heltzen dira espaloira, arrapalan gora azeleratuz, eta, ondorioz, batzuetan bizkor samar eta gauza handirik ikusi gabe igotzen dira. Tailer mekanikoetan, gainera, atzerantz edo atzerako martxan egiten dute sartu-irtena eta halakoetan arriskua berbera da: ez da espaloian datorren jendea ikusten.

_ Ez galtzada gurutzatu espaloitik irten eta aparkaturiko ibilgailuen artetik edo bigarren ilaran dauden autoen artetik.

- Hala jokatzek ekar ditzakeen ondorioak bistakoak dira (zer ikusten den eta zer kontrolatu daitekeen kontuan hartuta) gainera, gogoan izan, une horretan, gu konturatu gabe, aparkaturiko ibilgailuetako bat abian jarri daitekeela. Bidean datozen ibilgailuei bakarrik jaramon egiteko ohitura dugu galtzadan, bat-batean, espero ez dugun norbait agertzea ezustekoa izan daiteke, ondorio latzak izan ditzakeen ezustekoa.

8. SAIOA

_ Gidatu behar dugunean, beti, segurtasun uhala jarriko dugu, behar den moduan.

- Uhala beti jarri behar da, ez gidatzerakoan bakarrik, bidaide goazenean ere bai. Gainera, behar den moduan jarri behar da, eraz: uhala tolestu gabe, lokailuak ondo lotuta. Autoak atzealdean uhalak dituenean ere, hobe da jarrita eramatea.

_ Gidatzerakoan, ez arreta galdu auto eta bidearen kontrolari dagokionez.

- Oso irizpide garrantzitsua da gidatu behar duten lagun guztientzat. Are gehiago erreflexu handirik ez dutenentzat. Arreta galtzea autoan gaizki finkatuta dauden objektuek ere eragin dezakete, une batean erori edo mugitu egiten direlako. Auto barruan sortzen den "bizitzatxoak" ere galarazi dezake arreta: jendearen solasa, jendearen mugimenduak.

9. SAIOA

_ Autoko sartu-irtenak, ahal dela, behintzat, espaloi aldean dauden ateetatik egin.

- Salbuespen bat bakarra dago: gidariarena. Gidariari espaloia aldameneko atean eta ez bere aldean egokitu bazaio, atzerako ispiluen bidez ziurtatu behar du atzetik ez datorrela beste ibilgailurik.
- Autoa gidatu behar ez dutenek, espaloi aldean dauden ateetatik irten behar dute, baina orduan ere, ondo begiratu behar da pertsonak edo ibilgailu arinak datozen ikusteko. Irizpide hau oso garrantzitsua da taxietatik irteteko garaian, batzuetan ez baitute oso toki eta era egokian aparkatzen.
- Istripu asko gertatzen dira autoetako ezkerreko atetik irteteagatik. Eskuinaldetik irteten garenean ere kontu handia izan behar da, eta pertsonarik edo ibilgailurik (bizikletarik, motozikletarik.) datorren begiratu.

_ Eta beti-beti oso zorrotzak izan zirkulazioa arautzen duten seinaleak errespetatzeko orduan.

- Halaxe jokatu behar dugu, nahiz eta seinale horiek apaingarriak edo zentzu gutxikoak irudit.

10. SAIOA

_ Ez botikarik hartu ibilgailu bat gidatu behar denean.

- Botika askok logura edo bizkortasunaren moteltzea eragiten dute. Horrelako botikak hartu eta autoa gidatzea istripurantz abiatzea da.
- Nabarmentzea komeni da –batez ere adineko pertsoekin– norbere kontura botikak hartzea zeinen desegokia eta arriskutsua den.

_ Beste erreie edo bide batzuetan sartzerakoan, kontu handiz eta mugimenduak ondo neurtuta ibiliko gara.

- Irizpidea da bidetik datozen ibilgailuei abiada ez tratatzea.

11 SAIOA

_ Lehenago aipatu dugun moduan, 11 saioa errepassoa egiteko saioa da, irizpideak sendotzeko aldia.

_ Beraz, orain arte ikusitako eduki guztiak berraztertu ditzakegu, baina 10 saioetan zehar, taldeko eztabaidetan, ager daitezkeen beste eduki batzuk ere.

Saio honetarako proposatzen dugun bideoa aurreko bideoak baino luzeagoa da eta kutsu ezberdina dauka. Besteak dokudrama antzekoak dira; hau, ordea, dokumental tankerakoa.

Nahi izanez gero, DVDa edozein unetan gera daiteke, egoki iritziz gero, bertan agertu den gairen bat komentatu edo aberasteko. Are gehiago, taldeko partaideak animatzea komeni da, ikuskizuna eten eta zerbait erantsi edo komentatu nahi dutenean, beldurrik gabe egin dezaten.

4.3

Lan metodologia

Lehen hamar saioetarako lan egitarau hau proposatzen dugu

Aurkezpena

- _ "Aurkezpena" taldearekin izango dugun lehen harremana finkatzeko unea da, lanerako eskema berraztertzeko aldia, aurreko saioetan sortu diren gaiei begiratu bat emateko tarte... hots, taldea dagokion ildotik bideratzeko unea da.
- _ Bost minutu nahikoa izan daiteke.
- _ Lehen saioan, taldeak antolatzeko eta galdera bat planteatzeko erabil dezakegu: "zeintzuk uste duzue zuek direla zirkulazioan dituzuen arazo nagusiak?" Era horretan taldeko partaideen artean harremana sortuko da, giroa "berotu" egingo da (dena dela, beharbada, partaideek aurretik elkar ezagutuko dute). Talde-lanari ekiteko erabiliko diren arauak ezartzeko ere balioko digu (geroxeago aipatuko ditugu arau horiek). Une edo eginkizun honi "aurretiko teknika" deitzen diogu.

Bideoa

- _ Bideoak laburrak dira. Beraietan azaltzen diren gaietako batzuk Bide-Segurtasunarekin zuzenean zerikusirik eduki ez arren, estuki lotuta daude osasunarekin, bizi-kalitatearekin, lagunak izatearekin, albisteen berri izateko grinarekin... Gai horiei buruz zer pentsatzen duten azaltzeko gonbitea egingo diegu.
- _ Bideo bakoitzak kasu bat aurkeztuko digu, arazo batzuk azalduko dira, ikusleek lehenengo arazoa zein den zehaztu eta gero konponbideak aurkitu ditzaten. Bideo batzuetan, besterik gabe, komenigarriak ez diren jokabideak edo egoerak aurkezten dira Beste batzuetan, ordea, portaera onuragarriak eta kaltegarriak nahastuta. Taldeetako partaideek beraiek bereiztu beharko dituzte onak eta kaltegarriak.
- _ Bideoak bigarren aldiz ere ikus daitezke, guk hala proposatu eta taldeak onartzen badu.

Talde-lana

- _ Talde-lana beharrezkoa da saio guztietan. Garrantzitsua da taldeari gida txiki bat ematea nondik nora jo jakin dezaten. Ahal izanez gero, fotokopiak egin daitezke. Ezin bada, nahikoa izango da arbelean idatzitakoarekin.
- _ Nolanahi ere, kontua ez bada, besterik gabe, jokabide edo egoera kaltegarria zein den "asmatzea" ezpada argudiatzea, era guztietako konponbideak aurkitzea, ondorioak zehaztea, antzerako egoerak proposatzea, ezagutzen duten edo bizi izan duten egoera arriskutsuren bat azaltzea
- _ Funtsezkoa da talde bakoitzean ekarpenak, ondorioak eta gainerakoak jasoko dituen arduradun bat izatea. Azpitaldeen arteko irizpideen bateratzea edo erkaketa egiten denean ere, bera izango da bozeramaile lana egingo duena. Garrantzitsua da, halaber, talde bakoitzean partehartzeak koordinatu eta erabakiko dituen norbait izatea. Hezitzaileak berak edo bestela taldeko partaideek aukeratu dezake.
- _ Hezitzailea taldez talde ibili daiteke, nondik nora dabiltzan ikusteko. Talderen batean zailtasunak dituztela ikusiz gero, laguntza txiki bat eskaini dezake, baina gogoeta eta eztabaida ordezkatu edo estali gabe.
- _ Iraupena taldearen ezaugarrien, dinamismoaren eta partehartzeen arabera, luzeagoa edo laburragoa izan daiteke. Hasiera batean, eta aholku moduan, hogei bat minutuko tartea iraupen egokia izan daiteke.

Eztabaida orokorra

- _ Saioko unerik garrantzitsuenetako bat da. Talde bakoitzak bere ondorioak azalduko ditu eztabaida orokorraren helburu nagusia aztertutik arazoei buruzko "eraiketa" pertsonala gauzatzeko aukera ematea da.
- _ Honelaxe gauzatzen da: azpitalde bakoitzeko bozeramaileak, aurretik ezarritako ordena batean, taldearen ikuspuntua adierazten du. Azkenean, astiz ibiliz gero, eta taldeak adoretu jarraitzen badu, hitz egin nahi duen edozeini parte hartzen utziko diogu.
- _ Funtsezkoa da heziketaren ardura hartzen duen pertsona (edo pertsonak) dinamizatzaileak izatea, saioaren protagonista izan beharrean eragile izatea.
- _ Ondorioen erkaketak 20-30 minutu har ditzake. Taldeek aurretik egin duten lanaren eta parte hartzeko gogoaren arabera luzatu edo laburtuko dugu iraupena.
- _ Interesgarria izan daiteke arbel batean ondorio interesgarrienak idaztea. Talde-lanaren bidez sortu diren ezaguerak finkatzeko modua izan daiteke.

- _ Talderen baten partehartzearen bidez erantzun osoa edo erabatekoa lortu ez denean, Eztabaida Orokorren ardura hartu duenak galderak egin ditzake, falta diren alderdiak osatzeko. Hobe da galderen bidez erantzunak lortzea, norberak dakiena esatea baino. Beste aukera bat beste talderen bati falta den alderdia osatzeko aukera ematea da. Hala gertatuko ez balitz, galderak egingo ditugu apurka-apurka erantzun egokirantz hurbiltzeko.

Amaiera

- _ Azken zati honetan, talde osoaren ondorioak laburtuko ditugu. Hurrengo saioaren aurkezpentxoak edo sarreratxoak ere egin daitezke.
- _ Denboraz ibiliz gero, eta taldearen izaerak aukera ematen badu, ekintza osagarriak ere antolatu daitezke: dramatizazioak, gaiari buruzko istorioak idaztea, marrazkien bidez irudikaturiko egoerak lantzea

Azken saioan, dena berraztertzeko erabiliko dugun horretan, jardunaren eskema aldatu egingo da. Lehen aipatu dugun moduan, 11 saio honetan, aurreko egun eta saioetan landutako irizpideak laburtzea eta sendotzea da helburua. Horregatik, eskema singleagoa izango da:

Aurkezpena

- _ Aurreko 10 saioetako aurkezpenek duten iraupen eta egitura berbera izango du. Taldeari nondik nora joko dugun eta lanerako eskema zein izango den azalduko diogu, besteak beste. Oraingoan ere, nahikoa izan daitezke bost bat minutu eskaintzea.

Bideoa

- _ Aurreko bideoak baino luzeagoa da eta ezaugarri bereziak ditu: aurreko 10 saioetan aztertutako edukiak laburbiltzen ditu. Hargatik, ez dago aukera handirik edukiei buruzko talde-lana egiteko.
- _ Hala eta guztiz ere, azken saio honen osagarri gisa, bi ekintza mota hauek egin daitezke:

Aditu baten hitzaldia:

- Adituak osatu egin dezake bideoan agertutako informazioa edo beste ikuspuntu bat eman Bide Segurtasunaren eta hirugarren adinekoen arteko harremanaz: estatistikak, gaiari buruzko kanpainak.
- Nahi izanez gero, aurreko hamar egunetan agertu eta konponbiderik gabe geratu diren duda eta arazoei erantzuteko ere erabil daitezke hitzaldia. Gai asko geratuko dira "zintzilik": espaloiairen gainean aparkatu eta bidea eteten edo trabatzen duten ibilgailuak, espaloitik doazen bizikletak, autobusera igotzeko sistemak, istripuetan nola jokatu

- Gonbidatu hori ingurukoa, bertakoa bada, hobeto: udalekoa, udaltzaingokoa, DYAkoa, Ertzaintzakoa. Aseguru-etxeak ere interesgarriak dira, gai horietan adituak diren profesionalak izaten baitituzte.

Talde-lana:

- Aurreko jardunaren ordeztu, edo horren osagarri gisa, talde-lana egin daiteke. Eztabaida bat eratu daiteke, gaia zera dela: "nolakoa gustatuko litzazuke izatea zirkulazioa, adineko pertsonekin begirunea izateko eta bai beraiek eta bai gainerako herritarrek ahal dutentxoa egin dezaten?"

Beste ekintza batzuk ere jorratu daitezke lan-saioen amaiera honetan. Esate baterako: hiriko zirkulazioaren ardura duen agintariari gutun bat idaztea, aldagetak proposatzeko edo bideetako segurtasuna erraztuko duten arauak zorrotzago zaintzeko eskatzeko.

Eta, aukeran, herriko irratiren edo telebistaren bat, ikasketaren berri emateko, bertaratu eta erreportaje bat egitea ere egokia izan daiteke. Bisita horrek eraginda, taldeko partaideren bati elkarrizketa bat egin diezaioke kazetariak heziketa modulua nolakoa izan den, zein ondorio atera duten, aztertu dituzten arazoak zein konponbide duten azaldu dezan.

Egunkarietara gutun bat bidali eta aztertutako gairen bati buruz ardura handiagoa eskatzea ere proposa izan daiteke.

Komunikazioa bultzatzeko estrategia hauek guztiak bide egokia izan daitezke jorratutako edukiak sendotzeko eta komunikatu nahi den gaiarekin konprometitzeko.



Beste talde batzuekin egin daitezkeen ekintzak

Oinarrizko materialak, beste atal batzuetan azaldu dugun moduan, beste gizatalde batzuekin lan egiteko ere balio dezake. Bai bideoak bai lanerako eskema orokorra oinarri egokia izan daitezke horretarako.

Hori esateko dugun arrazoia zera da: hirugarren adinekoen istripuetan parte hartzen duten agenteak ez direla adinekoak bakarrik izaten. Beste gizatalde batzuek ere esku hartzen dute, hala nola, gidariek, txirrindulariek, motoziklistek.

Eta azpimarratzekoa da gazteek izaten duten eragina. Hala, bada, material hau gizatalde horrekin ere erabiltzea proposatzen dugu.

Baina hala eginez gero, saioen, eztabaiden, ondorioen erkaketen alderdi guztien zentzua aldatu egingo da. Beste agente horien ikuspuntutik aztertu beharko dira ikus-entzunezko dokumentuak.

Hargatik, bai sarreran eta bai galderetan, aldatu egin behar da ikuspuntua: zer egin dezakegu? Zer egin behar dugu adineko pertsona batekin istripurik edo arazorik ez izateko bideetan? Eta abar.

Bestalde, egia da edukiak eurak (hau da, istripuen zergatiak) gazteentzat ere egokiak izan daitezkeela, haiek ere oinezkoak baitira.

Bestela, lanerako eskema —bai 10 saioena, bai errepaso saioarena— berbera izan daiteke bi gizataldeekin.



Talde-lanerako fitxak

Jarraian, zenbait fitxa jarri ditugu, saioka antolatuta. Talde-lana dinamizatzeko oinarria izan daitezke. Fotokopiak egin eta dauden-daudenean erabiltzeko moduan prestatu ditugu.

Lehenago esan dugun moduan, nahi izanez gero, fotokopiatu egin daitezke edo nahi izanez gero, arbelean idatzi. Edonola ere, iradokizunak baino ez dira.

Tarte handiak utzi ditugu, dauden moduan hartuz gero, idatzi behar duenak taldeko ekarpenak idazteko lekua izan dezan.

→ Egoera horietako zeintzuetan izan dira Begoña eta Manolo istripua izateko arriskuan?

→ Zer gerta daiteke egoera horietako bakoitzean?

→ Nola jokatu beharko lukete egoera bakoitzean?

→ Aztertu diren kasuen antzekorik ezagutzen al duzue?

→ Zenbait unetan, Manolok eta Begoñak arriskuan jarri dute euren burua autobusean... Zein unetan?

→ Zer gerta dakieke egoera horietako bakoitzean?

→ Zein neurri hartu beharko lukete kalterik ez izateko?

→ Aztertu diren kasuen antzekorik ezagutzen al duzue?

→ Arantza zuzen dabil? Kontu handiagoarekin beharko luke?

→ Zer gerta dakioki horrela ibiliz gero?

→ Nola jokatu beharko luke horrelako egoeretan?

→ Aztertu diren kasuen antzekorik ezagutzen al duzue?

→ ¿Manolo, Jose Marik, Luisek eta Juanek arriskuan jarri al dute euren burua? Zein arriskutan?

→ Zer gerta dakieke egoera horietako bakoitzean?

→ Nola jokatu beharko lukete egoera bakoitzean?

→ Aztertu diren kasuen antzekorik ezagutzen al duzue?

→ Begoñak jarri al du arriskuan bere segurtasuna? Nola?

→ Zer gerta dakioke horrela ibiliz gero?

→ Zein jokabide hartuko zenukete zuek?

→ Aztertu diren kasuen antzekorik ezagutzen al duzue? Zuen ustez, auzoan, herrian edo hirian toki asko daude pasabide zaila dutenak, seinالاتu gabe daudelako, semaforoak falta direlako edo beste arrazoren batengatik?

→ Zein egoeratan izan dira Begoña eta Manolo istripua izateko arriskuan?

→ Zer gerta dakieke egoera horietako bakoitzean?

→ Nola jokatu beharko lukete egoera horietako bakoitzean?

→ Aztertu diren kasuen antzekorik ezagutzen al duzue?

- Begoña eta Manoloren jokabidea, gehienetan, zuzena izaten da. Baina batzuetan ez dira kontu handiz ibiltzen. Zein kasutan?

- Zer gerta dakieke egoera horietako bakoitzean?

- Nola jokatu beharko lukete?

- Aztertu diren kasuen antzekorik ezagutzen al duzue?

→ Zein egoeratan —nahiz eta hutsalak irudituz— izan dira Begoña eta Manolo arriskuan?

→ Zer gerta dakieke egoera horietako bakoitzean ?

→ Nola jokatu beharko lukete?

→ Aztertu diren kasuen antzekorik ezagutzen al duzue?

- └─ Manu eta bere familia aurretik jakin ezin diren ondorioak ekar ditzakeen egoeretan egon dira. Zeintzuk dira egoera horiek?

- └─ Zer gerta dakieke?

- └─ Nola jokatu beharko lukete?

- └─ Aztertu diren kasuen antzekorik ezagutzen al duzue?

- Zein egoeratan jarri dute euren burua arriskuan Begoñak eta Manolok? Arrazoia al du beti Manolok?

- Zer gerta dakieke?

- Nola jokatu beharko lukete?

- Aztertu diren kasuen antzekorik ezagutzen al duzue?



Hezitzaileentzako oharrak

4.6.1 Antolatzeko erak

Aurretiko teknika

Lehenago aipatu dugu zein izan daitekeen taldeari lehen harremana (bai pertsonen artekoa eta bai pertsonen eta aztertuko den gaiaren artekoa) gauzatzeko aukera eskainiko dion lehen saioa.

Helburua taldeak "zer dakien" ikusaraztea da. Beraien "interesguneak" zabaltzeko aukera bat ere bada lehen saio hori.

Beste atal batean aipatu den bezala, azpitaldeen lana antolatzen ikasteko aukera ederra izan daiteke taldeko partaideentzat.

Ihardunaren ardura duen pertsonaren eta beste partaideen arteko harremana nola gauzatuko den finkatzeko unea ere izan daiteke.

Mintegia

Eztabaidarako tekniketan oinarritzen da eta talde txikiak antolatzea eta debaterako guneak sortzea eskatzen du.

Oinarri metodologikoak helduen heziketarako estrategietan aurkituko dira.

Printzipio bat hartzen da abiapuntutzat: heziketa egiteko, saioetan parte hartzen duten pertsonen aurretiko esperientziak hartu behar dira oinarritzat eta esperientzia horiek adierazteko aukera eman behar zaie partaideei.

Saioen ardura hartuko duen pertsonaren jarrera eta jokabidea funtsezkoa da. Gai honetan aditua bada, hobe. Baina ez da hori garrantzitsuena: talde-estrategietan aditua izatea da kontua; edo saio bakoitzerako taktika oso ondo prestatzea, batez ere jendeak parte hartu dezan eta partaidetza ordenatua izan dadin lortzeko.

Zeregin nagusia arazoei konponbidea aurkitzea izango da. "Zer egingo zenukete egoera honen aurrean?" izango da beti galdera.

Saio hauen iraupena laburra izango da, bestela neketsua izan daiteke. Eta adineko pertsonen ari garenean, horrek badu bere garrantzia.

Hitzaldia

Honelako lan-egituretan, garrantzitsua izaten da gai jakin bati buruz hitz egitera datorren aditu baten parte hartzea lortzea.

Hitzaldiaren ondoren, galderak eta zalantzak aurkezteko aukera izaten da. Dena den, parte hartze hori prestatu egin daiteke, galderak aurretik taldeka landuz gero.

Adituaren hitzaldiak laburra izan behar du (30-40 minutu) eta, komenigarria iritziz gero, ikus-entzunezko baliabideez lagundu daiteke.

Garrantzitsua da taldearen eta adituaren arteko harremanak bideratu eta antolatuko dituen pertsonaren eginkizuna.

Eta, halaber, aretoak egitura egokia duen, jarlekuak eta hizlariaren tokia egokiak diren begiratzea ere komenigarria da.

Taldea aurreko kasuan baino handiagoa izan daiteke, teknika hau egokiagoa baita talde handientzat.

4.6.2 Antolatzeko bete beharrekoak

Aurretiko teknikan bete beharrekoak

- _ Jardunaren helburua azaltzea, partaide bakoitzari bere erreferentziak aurkitu eta komunikatzen laguntzeko.
- _ 4 edo 6 laguneko talde txikiak eratzea. Taldeko partaideak lehendik ezagunak badira eta antolatuta badaude ez dago talde berriak egin beharrik; antolamendurik ez badago, ordea, zortearen arabera egin daitezke taldeak.
- _ Esate baterako: ezkerretik (edo eskuinetik) zenbatzen hasi eta taldeko partaide kopurua bete arte jarraituz; gero, berriro batetik hasi eta beste talde bat osatzen jarraituko dugu.
- _ Edo beste era bat partaide bakoitzari zenbaki bat ematea izan daiteke. Zenbaki berbera duten guztiek talde bat osatuko dute (1 zenbakia duten guztiak elkarrekin, 2 zenbakia dutenak berdin eta abar.
- _ Hurrengo urratsa galdera argi eta garbi egitea izan daiteke: zeintzuk dira gidatzen ari zaretenean edo oinez zoaztenean izaten dituzuen arazoak? Zeintzuk uste duzue direla arazo horien sorburuak?

- _ Ez utzi bere arazoa kontatzeko joera duen inork taldearen denbora guztia xahu dezan. Oreak bat lortu behar da: interesgarria da esperientzia pertsonalak kontatzea, baina hori bitartekoa da, ez helburua.
- _ Aipatu dugu beste atal batean zeinen garrantzitsua den hezitzaileak dinamizazioa eta koordinazioa ondo egitea, aholkuak ematea. Kontua ez baita "dena jakitea" edo ekitaldietako "izarra" izatea.

Hitzaldian bete beharrekoak

- _ Garrantzitsua da hitzaldia eman aurretik, hizlariarekin hitzegitea honakoak azaltzeko: taldeak zer nolako lana egin duen, nolako partaideak dituen, beraien kezkak zeintzuk diren, zeinekin ibili behar duen kontuz denbora eta taldearen arreta bereganatu ez dezan
- _ Galderen txanda iristen denean, moderatzaile lana hezitzaileak hartuko duela ere esan behar zaio.
- _ Garrantzitsua da taldea "zirikatzea" erantzunik gabeko galderak botatzea
- _ Ikus-entzunezko baliabideak erabiltzea aberasgarria izan daiteke. Ahal dela erabili.
- _ Batzuetan, interesgarria izan daiteke entzuleen galderetako batzuei beste galdera batekin erantzutea eta horrela parte hartzea bultzatzea.
- _ Hitzaldiak ahalik eta gutxien iraun behar du: komunikatu nahi dena komunikatzeko eta taldean zenbait galdera sorrazteko behar den denbora baino ez. Ez da komeni hitzaldi luze bat egin eta hortxe bukatu dugula pentsatzea.

4.6.3 Alderdi logistikoak

- _ Lan-saioak egiteko egunak ondo finkatu behar dira. Begiratu lan egiteko aukeratu diren orduetan eragozpenak sortu ditzakeen "gertakizunik" dagoen: herriko jaiak, egoitzak antolaturiko beste ekitaldi batzuk, telebistako programaren bat...
- _ Adituak edo beste laguntzaile batzuk ekartzeko asmoa badugu, aurretiaz ondo zehaztu etortzeko modua duten ala ez. Eguna hurbildu ahala, berriro deitu, datuak zehaztu eta gogorarazi eta lekua eta ordua ondo azpimarratu.

- _ Lehenengo hamar saioak osatzeko aditu bat ekarri behar baldin badugu, saio horietan ateratako ondorioak bidaliko dizkiogu hamaikagarren saio hori hobeto egokituta edo prestatuta ekar dezan.
- _ Komenigarria da laguntzeko asmoarekin datozen lagun horiekin aurretik, beste egun batean, batzartu eta Heziketarako modulu honen edukiak eta metodologia azaltzea.
- _ Begiratu erabili behar diren ikus-entzunezko baliabideak eskueran eta behar den moduan dauden (gutxienez, DVDa eta telebista behar da). Beti komeni da gauza hauek aurretik probatzea, arazoren bat agertuz gero, aurretik konpontzeko modua izateko.
- _ Erabiliko dugun aretoa aurretik aztertzea ere garrantzitsua da: mahai eta aulkien banaketa nola egin daitekeen, partaideen kopururako eta adinerako egokia den ikustea, argindarraren hartuneak non dauden, zenbat diren (luzagarririk beharko den, hiruko entxufeak.), soinu instalazioa behar den ala ez, argia, arbelak.
- _ Ez litzateke batere gaizki egongo pitxer batzuk, ura eta plastikozko edontziak jartzea ere. Eta, aurrekontua heltzen bada, lan-saioaren erdian, atsedenaldira, kafetxoren bat edo infusioaren bat hartzeko modurik badago, hobe.
- _ Ez ahaztu idazteko behar den materiala prestatzea: lapitzak, boligrafoak, papera
- _ Lan-saioetarako beharko diren fotokopia guztiak prest eduki, bai gida honetan agertzen diren fitxenak eta bai beste jatorri bat izanik, lan-saio hauetarako egokiturikoak.
- _ Lan-saioak egunero egin beharrean, aldika antolatzen badira, egitarau txiki bat prestatu behar da. Horrela, denak jakinaren gainean egongo dira. Lan-saio bakoitzean, beti, hurrengo lan-saioa noiz den esango dugu.
- _ Lan-saio hauek egoitzetan edo erakunderen baten babespean eginez gero, aurretik kartelak egitea eta ipintzea komeni da.

4.6.4 Saioetan kontuan hartzekoak

Jarraian saioak arinagoak izateko eta parte hartzea bultzatzeko asmoarekin hezitzaileak lan-saioetan izan behar dituen jokabideekin loturiko zenbait alderdi aipatuko ditugu.


Hauexek dira:

- _ Ahalegindu beti, lehen saiotik, esandako orduan hasten.
- _ Saioaren dinamika zein izango den ondo azaldu, hasi aurretik.
- _ Bideoa ikusi aurretik, gero taldeka jorratuko diren galderak azalduko ditugu pixka bat.
- _ Galderekin datozen orriak talde-lana hasi aurretik baina bideoak ikusi ondoren banatu.
- _ Talde-lanean dauden bitartean, ahal dela, ez beste materialik banatu, nahasmenik ez sortzeko.
- _ Saioan parte hartzen duten pertsonen arteko eztabaida bultzatuko dugu, baina denek parte hartzeko moduan, solasa bakan batzuen eskuetan gera ez dadin.
- _ Garrantzitsua da hasieratik saioan parte hartuko duten lagun guztien izenak ikasten ahalegintzea.
- _ Adi-adi entzun esaten den guztia eta talde osoak jokabide berbera izan dezan ahalegindu. Taldeko partaideren bat parte hartzen ari denean, beste batzuk berriketan ari badira, eten berriketak. Elkarrenganako begirunea izan behar dute.
- _ Aldez aurretik, debateetan eta eztabaida orokorrean parte hartzeko eta "txanda eskatzeko" modu bat finkatu eta arau hori beti bete.
- _ Norbere iritzirik ez ematen ahalegindu. Eta iritzia eskatzen badigute, galdera hori taldeari itzultzen ahalegindu, denen artean erantzun dezaten.
- _ Lan-saioaren azken zatian, norbaitek ideia nahasi edo ilunen bat adierazten badu, talde osoari proposatu hurrengo saiorako hausnartu eta sakontzeko. Hurrengo saioan ez ahaztu hausnartzeko utzitako gai hori aztertzea.
- _ Aldika, isiluneak sortzea, berez, ez da txarra. Hobe da isilik jarraitzea hezitzailearen alferrikako monologoa baino.

- _ Lan-saioari amaitzeko ordua ipini badiogu, ordu hori baino bost minutu lehenago bukatuko dugu eztabaida orokorra, laburpen txiki bat egin ahal izateko. Partaideen ekarpenak, esan ahala, arbelean idatziz gero, errazagoa izango da laburpena egitea.
- _ Saioa hasteko ordua baino pixka bat lehenago joanez gero, eta materiala eta aparailuen funtzionamendua aurretik begiratzuz gero, askoz hobeto joango da dena saioan.
- _ Kontuan izan behar ditugu hirugarren adinekoen mugak. Batez ere, ahotsari eta entzumenari dagokionez. Ozen eta argi hitz egin eta besteei ere halaxe jarduteko eskatu. Hargatik aretoa intsonorizatuta egotea komeni da.
- _ Taldeko partaideren batek hitz egiteko nahia erakusten duenean, talde osoari hitz egin diezaiola eskatuko diogu, ez diezaiola hezitzaileari bakarrik hitz egin.
- _ Ekarpak berriak sortarazi. Horretarako estrategia ona izan daiteke esandako gauza guztien laburpenak egin eta iritziak eskatzea.
- _ Beraien parte hartzea egokia denean, gure esker ona erakutsiko diegu. Hezitzaileak eredu izan behar du besteentzat zintzotasunari eta tolerantziari dagokionez.



Materialaren egitura





Aurkezpen orokorra

Hasierako ataletan ikusi dugun moduan, heziketarako moduluaren material euskarria idatzizko eta ikus-entzunezko baliabideetan oinarritzen da.

Taldea osatzen duten partaideentzat ikus-entzunezko materiala izango da lanaren ardatza (hala izango da, ikuspuntu formala kontuan hartuta).

Heziketarako moduluen helburuak kontuan hartuta, ordea, azpitaldeen lana eta ondorengo eztabaida orokorra da heziketaren oinarria eta emaitzak ekarriko dituen.

Horrexegatik da hain garrantzitsua hezitzailearen eginkizuna.

Eta hain zuzen ere, horixe da heziketarako modulua osatzen duten materialen helburua: hezitzaileari bere lanean laguntzea.

Ikus-entzunezko materiala irizpide "zirikatzaile" edo "eragile" batetik planteatu da; ez da, beraz, dokumental tankerako materiala.

Bideoen edukiak aurretik ezagutzea komeni denez, jarraian, hurrenez hurren, bideo guztien edukia eskaintzen dugu.



Bideoak

5.2.1 1. bideoa Autobusean I

Egunon. Hementxe gaituzue berriz ere bide-segurtasunari eskainitako informazio tarte honetan. Trafikoa, garraioa, kaleak eta errepideak gero eta korapilotsuagoak gertatzen direnez, oso garrantzitsua da guztiok arreta handiz eta arduratsu jokatzeari.

Gure kazetari eta kamerak senar-emazte bikote baten eguneroko bizitzara hurbildu dira eta honako hauxe prestatu digute.

Narrazioa

Hementxe ditugu Manolo eta Begoña. Gaurkoa egun berezia dute, euren iloba baten urtebetetzea baita.

Familia hurbil sentitu eta seme-alabak aurrera ateratzea zenbat izerdi kostatzen den gogora ekartzeko egun horietako bat, baina horra hortxe, lanbidea eta euren sendia dutela, eta onenak iloba txikiak, gaur urteak betetzen dituen dute kuttunen gainera, baina bigunkeria hori Begoña eta Manoloren sekretua da eta gainontzeko ilobak kontura ez daitezzen ahalegintzen dira beti.

Oparia ere prest daukate. Ederki kosta zitzaien nahi zutena aurkitzen baina azkenean une egokian topatu zuten denda aproposa.

Irteteko ordua da baina betikoa, Begoña berandu dabilela. Izan ere preparatzen denbora dezente behar izaten baitu.

Manolo urduritzen hasia da. Semea eta errainaren etxeraino heltzeko autobus bat baino gehiago hartu behar dute eta autoa duten arren, ahal duten guztietan garraio publikoak erabiltzeko ohitura dute. Eta jakina, ordutegi arazoak sortzen dira: bateko trafikoa dela, jendeak ez duela begiratzen nondik dabilen.

Azkenean. Begoñak amaitu du, beti gustatu izan zaio prestatzea, eta orain adinarekin ematen du sekula baino gehiago.

Semea hiriaren beste muturrean bizi da eta denboraz larri samar dabilta. Eskerrak aurrena hartu behar duten autobusaren geltokia etxetik hurbil dagoen.

Zain egon dira baina ez luzaroan. Hortxe dator. Baina presaren presaz, espaloitik behera jaitsi dira autobusa gelditu ahala igotzeko asmoz.

Manolok lagundu dio Begoñari igotzen, azken aldian ez baitabil oso ondo hanketako zain harroetatik.

Igo dira eta bai ederki, eserleku bat libre dago. Begoñarentzako, noski, pentsatu du bere baitan Manolok.

Egin dute bidaiaren aurreneko zatia. Orain semearen etxe parean utziko dituen bigarren autobusa harrapatu behar dute.

Jaisten ere laguntzen dio Manolok Begoñari. Eta hara, zer zortea Bigarren autobusa bestaldeko espaloian dute zain. Manolok Begoña eskutik hartu eta autobusa galtzeko beldurrez, bidea hainbat arinen gurutzatzen dute.

Zortea izan dute, hamar minutuan semearen etxean dira. Ilobatxo maitea harri eta zur geratuko da erosi dioten oparia ikusten duenean. Polita da, gero, familia hazten ikustea eta denak primeran daudela sentitzea

Ikusi dugunez, Begoña eta Manolo zorionekoak dira, baita autobusa hartzeko garaian ere.

Baina gaurkoan zorte handiegia izan dute. Jarraipena egin diegun tarte honetan istripu edo gorabeheraren bat izateko arrisku latzean egon dira. Erietxerako bidea ez dute ez oso urrun izan.

Benetan arriskatu al dira Manolo eta Begoña istripuren bat izatera?

Zein unetan?

Zer arrazoiengatik?

Zein egoeratan ibili beharko zuten arretatsuago?

Une arriskutsu horiek guztiak zeintzuk izan diren aurkitu, zehaztu eta eztabaidatze lana zeuoi utziko dizuegu galdera hauei erantzutearekin batera.

Erantzun zuzenak aurkituko dituzuelakoan, agur eta laster arte.

5.2.2 2. bideoa Autobusean II

Aurkezlea

Egunon, hemen gara berriz ere zuekin.

Eta gaur ere Begoña eta Manolorekin. Euren eguneroko bizitza jasotzeko beraiekin dira gure kamerak. Hauxe da prestatu dizuegun erreportajea.

Narrazioa

Dagoeneko ezagutzen ditugu Begoña eta Manolo, euren iloba kuttuna, eta familiaganako atxikimendua.

Ilobaren urtebetzea ospatu dute eta dena primeran joan da. Senitarteko bilera polita izan da.

Giro ederrean egon direnez, tentsioarekiko arazoak ahaztu eta bazkalostean kopatxoren bat ere hartu dute Manolo eta Begoñak.

Berandu samar da eta Manolok eta Begoñak erosketa batzuk egin nahi dituzte erdi aldean etxera itzuli aurretik.

Berrirori presaka, merkataritza-gunera eramango dituen autobusaren atzetik.

Oraingo honetan ez dute lehen adinako zorterik izan. Bistan zutela abiatu baita autobusa. Zer egingo diogu ba Zain egon behar.

Pixkanaka-pixkanaka geltokia jendez betetzen hasi da.

Badator autobusa. Manolo kezkatu egin da euren atzean autobusaren zain zenbat jende bildu den ikusita. Hori dela eta, autobusa erabat gelditu aurretik, ateari heldu dio Begoñari laguntzeko asmoz.

Ahalik eta azkarren igo eta autobusaren irteera ondoan kokatu dira, merkataritza-gunekoa baita hurrengo geldialdia.

Eguna oso interesgarria izan da eta urtebetetze egunak eman duenaz solasean aritu dira une batez: iloba zenbat hasi den, zeinen argia den, euren semea eta erraina, itxura batean, zeinen ederki konpontzen diren

Pozik eta lasai daude. Atearen ondo-ondoan daudenez, ez dute zertan helmugara noiz iritsiko kezkatuta egon.

Autobusa gelditu da eta merkataritza-gunea azaldu da parez pare. Erosketak egin eta paseoan arratsalde polita pasatzeko aukera dute.

Aurkezlea

Baina patxadaz paseatuz, erosketak egiteko duten arratsalde eder hau, agian, hondatu egingo zitzaien gaur bertan arriskuan izan diren uneetan Manolok oraindik ere erreflexu horiak dituela erakutsi izan ez balu.

Zeintzuk dira istripu posible horren arrazoiak?

Zeintzuk izan zitezkeen ondorioak?

Zer beste neurri har genitzake autobusean ibiltzerakoan?

Non ote daude gerta daitezkeen beste istripu batzuen sorburuak?

Noiz eska geniezaieke laguntza beste pertsonei?

Galdera hauek guztiek oso erantzun interesgarriak izan ditzakete eta ziur gaude zuek topatuko dituzuela erantzun egoki horiek, ez baitzarete alferrik urte luzetan esperientzia bilduz bizi. Agur.

5.2.3 3. bideoa Beti ibili kontuz

Aurkezlea

Egunon, zer moduz? Gaur trafiko araei buruz hitz egin nahi dugu. Trafiko arau horiek pertsona guztiek bete beharrekoak dira baina behin baino gehiagotan ez dira zuzen jarraitzen eta horrexegatik argi ibili behar dugu beti. Gu bezain zintzo ibiltzen ez denik ere badagoelako. Ikus dezagun prestatu dugun erreportajea.

Narrazioa

Begoña eta Manolok ondo zaintzen dituzte betiko lagun minak.

Euren lagunik onenetako bat Arantza da, aspalditik gainera. Afaltzeko, bazkaltzeko edota elkarrekin bidaiaren bat egiteko elkartzen diren askotan gogoratu ohi dute Arantzak aurkeztu ziola Manolo Begoñari.

Arantza alargun geratu zen orain urte batzuk. Manolo eta Begoña dira orain bere lagunik onentsuenetako bi.

Gaur elkarrekin egoteko zita egina zuten aurretik. Zertarako? INSERSOren bidaietako bat aukeratu eta prestatzeko

Denen artean bidaiari buruzko informazio polita bildu dute: prezioak, otorduen kalitatea, inguruan bisitatzeko dauden leku interesgarriak, hoteleko ekitaldi bereziak.

Pixkanaka, lehentasunen zerrenda egin dute, ondotxo baitakite batek nahi duena lortzea ez dela erraza izaten.

Berriketan ari zirela, Begoña pentsakor geratu da. Bitxia iruditzen zaio Arantza beraiekin horren gustura egotea.

Arantza nortasun handiko emakumea da, bere buruaz seguru dauden horietakoa, zuzena eta bere eskubideak zeintzuk diren ederki dakiena. Eta urteek aurrera egin ahala izaera hori areagotu egin zaio.

Azkenerako oporraldi polit bat pasatzeko planak ia prest dituzte. Ondo etortzen da giroa aldatzea

Arantzak beste eginkizunik badu oraindik eta elkarri agur esan diote.

Arantzak taxia hartu nahi zuen baina gaur animatuta dagoenez, oinez joatea otu zaio, ondo etortzen baita, nahiz eta horretarako makilaren laguntza ezinbestekoa duen.

Pozik dagoenez, oinez baino hegan dabil, bidaia gogoan duela airean joango balitz bezalaxe sentitzen da.

Bat-batean zerbaitek amets horretatik esnatu egin du ordea. Ikusi du bai bazetorrela baina gainontzekook bezalaxe badaki zebrabideetan autoek geratzeko agindua dutela.

Hasieran, begiratu zorrotza jaurti dio autoaren gidariari. Gero, makila jaso du pixka bat, mehatxu eginez bezala eta gidariei buruzko hitz gogor batzuk esanez.

Zer uste ote dute! Trafiko arauetan autoek geratu egin behar dutela badio, geldi daitezela, ze gero! Hala ere, egia esan behar bada, pixka bat izutu ere egin da

Gero bere bideari ekin dio, harrotasuna ahal zuen lekutik atereaz, izan ere, barren-barrenean, susto ederra eraman baitu.

Aurkezlea

Argi dago Arantzak arrazoi guztia duela trafiko araei dagokienean. Autoek beti pasatzen utzi behar diete oinezkoei zebrabideetan.

Baina egia ere bada beharbada berak ez dituela kontuan izan oinezkoek hartu beharreko neurri guztiak, eta, horren ondorioz, istripuren bat jasan edo eragiteko arriskua sortu.

Zein neurri ez ditu Arantzak kontuan hartu?

Oinezkoen pasabideetan, arrazoia berea izan arren, zer besterik izan behar zuen kontuan?

Gidatzen dugunak eta oinez gabiltzanak behar bezala prestatuta ote gaude, trafiko arauak errespetatzeaz gain, arretaz eta arduratsu jokatzeko?

Galdera hauek mahai gainean ipini nahi izan ditugu denok ondo aztertu eta gogoeta egin dezagun.

Hurrengora arte.

5.2.4 4. bideoa Ez gurutzatu kalea garaia baino lehen

Aurkezlea

Trafiko arauekin istripuak ekidin eta autoen zirkulazioa arindu nahi izaten da. Oinezkoak babestea da helburuetako beste bat eurak baitira ahulenak.

Arau horien aurrean, ordea, begirunea izateaz gain, arretaz eta aurreikuspenez jokatzeari behar-beharrezkoa da.

Ikusten dugunez, gaur Manoloren eta Begoñaren etxean giro polita dago. Asteartea da eta urteko ia astearte guztietan karta-jokoan aritzen dira lagunekin.

Begoñak lagunekin egon, solasean aritu, mokadu bat jan eta kartetan aritzeko aukeraturiko eguna da.

Antza denez, Manolok –jokorik ez duela eta– paseatzera joatea erabaki du.

Berak ere badu zeregina. Bere lagunekin elkartu eta Begoñak bezalaxe lagunekin karta-jokoan aritzeko intentzioa du: musean arituko dira.

Urteak daramatzate berdin-berdin, izan ere, Manolok lagun onak baititu.

Bat Jose Mari da. Orain urte batzuk zaharren egoitza batera joan zen bizitzera. Mutilzaharra zenez, bakarrik bizitzera ohituta zegoen, baina egoitzan konpainia hobeak izateaz gainera, hobeto zainduko zutela pentsatu zuen. Ahal den guztietan ariketa fisikoa egitea garrantzitsua dela pentsatzen du eta horrexegatik aukera duen guztietan oinez ibiltzeko gertu dago.

Hau, berriz, Luis da. Alabaren etxean bizi da eta tarteka sufritzen dituen ziatikaren erasoengatik ez balitz, bikain dabil. Tamalez, ziatika agertu zaion egun horietako bat tokatu zaio gaurkoa, baina animatu egin behar. Hortxe dugu egoitzara bidean.

Hona asteroko mus-desafioko azken jokalaria, Juan. Motor batek harrapatu zuen eta harrezkero, herrenka dabil. Kalea zeharkatzen ari zela motorra azaldu eta ez zuen gelditzeko astirik izan. Gainera, Juan ez zen zebrabidetik pasatzen ari. Ondorioa susto ederra, hankan haustura gaiztoa eta harrezkero errenka ibili beharra eta, hala ere, pozik, okerragoa izan ez zenean.

Horrexegatik jokatzeko dute musean Juanen etxe ondoan dagoen elkartean, berak dituelako batera eta bestera joateko arazorik gehien.

Manolok gustuko du oinez ibiltzea, elkartea oso urrun ez duen arren.

Arratsalde polita datorrela diote. Errebantxa gogoa sumatzen da giroan aurreko astean Juan eta Luisek oso gutxigatik galdu baitzuten

Aurkezlea

Beharbada, lagun hauek ez zuten gaur karta-jokoan aritzeko aukerarik izango. Izan ere, lau pertsonaiek bete duten ibilbidean benetako arriskua egon baita istripuren bat gertatu ahal izateko.

Zein unetan egon dira istripua izateko zorian?

Nola jokatu behar zuten?

Galdera hauek eta beste zenbait airean utziko ditugu erantzunak zeuok aurki ditzazuen. Agur.

5.2.5 5. bideoa _ Laguntza eskatu

Aurkezlea

Egunon, gaur ere zuekin gara.

Zuzenean, prestatu dizuegun erreportajeari helduko diogu. Behin ikusi eta eztabaidatu ondoren, zeuok egin ahal izango baituzue hitzaurrerik egokiena.

Narrazioa

Begoñak eta Manolok bizimodu arteza, eta nolabait zoriontsua daramate.

Urte luzetan lan egin eta familia aurrera ateratzeko borroka egin ondoren, erretiro animosoa bizi dute. Bidaiatxorik egiten dute, lagunak zaindu, eta euren adinerako egokia den gimnasia pixka bat ere egin ohi dute.

Orain arte astirik ez zutenez, gozatu ezin zituzten zaletasunak ere berreskuratu dituzte. Esate baterako, irakurketa. Begoña aspaldian ikusmena galtzen ari den arren, betaurrekoekin primeran moldatzen da.

Berreskuratu duten beste zaletasun bat sukaldaritza da, orain denbora gehiago baitute horrelako gauzetan aritzeko.

Sukaldea Manoloren kontua da. Begoñak sarritan pentsatu ohi du Argiñanoren plantak egitea gustatzen zaiola.

Sukalde kontuan bada asko zaintzen duten beste gai bat. Otordu orekatuak egitea. Fruta eta barazkiak beti azaltzen dira euren jatorduetan.

Erosketak elkarrekin egiten dituzte. Izan ere, sukaldariari sukaldean erabili behar dituen lehengaiak aukeratzeko orduan bertan izatea gustatzen zaio.

Gaur, ordea, Manolo bere platerik gogokoenetako bat prestatzen ari da eta gainera fruta-dendan jenerorik onena izaten duten eguna da.

Gaur, beraz, Begoñak bakarrik erosiko ditu fruta eta barazkiak.

Izan ere, di-da bateko kontua baino ez da.

Bien artean egin dute erosketako zerrenda eta Begoña joateko prest dago.

Begoñak zerbait ahaztu du ordea: betaurrekoak. Ez da harritzekoa zerbaiten falta sumatzea. Tira, ez du merezi berriro etxera itzultzea. Betaurrekorik gabe ere moldatuko dela uste du.

Baina, egia esan, arazo nahikoa badu bidean, alde batetik bestera pasatzerakoan autorik datorren ala ez datorren ikusteko.

Fruta-dendan ere prezioaren batzuk galdetu egin behar izan ditu, betaurrekoak ahaztu dituen aitzakia ipinita.

Badoa bueltan etxera. Berak uste zuena baino denbora gehiago behar izan du. Eguerdia da eta trafikoa gehitu egin da.

Pasabiderik ez dagoen tarte batean zeharkatu nahi du kalea Begoñak. Zalantzak. Batetik, kalea nahikoa zabala da eta, bestetik, betaurreko ezak ez dio batere ziurtasunik ematen.

Aurkezlea

Kezkatuta eta zalantzez josita azaltzen zaigu. Zer egin? Ikusteko dituen arazoak ahaztu eta aurrera egin?

Bestalde, erosketako "karrua" ez da batere lagun ona arin ibiltzekotan. Hala eta guztiz ere, aurrera egin eta bidea zeharkatu?

Betaurrekoak berriz ere etxean ez ahazteaz gain, zer gomendatuko zenioke zuek Begoñari?

Ikusmen eskasa, arintasun eza, nekea eta arazo fisikoen eraginez egoera hau sarritan gertatzen dela uste al duzue?

Zalantzarik gabe denon artean aurkituko dituzue irtenbiderik egokienak. Noski. Ikusi arte.

5.2.6 6. bideoa _ Beti espaloitik. Ez badago, ezkerretik

Aurkezlea

Erosketak egitera irten den Begoñaren arazoentzako irtenbiderik topatu al duzue?

Egia esan, kalea batere arazorik gabe zeharkatu zuen azkenean.

Izan ere, Begoña oso bihotz onekoa baita eta ahal duen guztietan besteei laguntzen saiatzen da.

Ederki, oraingo honetan berak izan du besteen laguntza beharra eta batere lotsarik gabe eskatu du.

Bere hirian jendeak uste duena baino askoz ere jende zintzo gehiago dagoela pentsatzen du berak.

Horra hor non ikusten dugun Begoña etxera iristen. Goazen berarekin unetxo batez.

Narrazioa

Manolo kezkatzen hasia zen. Gainera, barazkietako baten premia zuen bere plater maitea prestatzeko.

Erosketa garaiko gorabeheraz solasean aritu dira. Gainera, ibiltzeko egun aproposa egiten duenez, hiriko kanpoaldetik paseotxo bat ematea erabaki dute.

Bien ustez, fruta, barazki eta esnekietan aberatsak diren otorduak eginda eta oinez sarri ibiliz gero, euren bizi kalitatea hobetu eta hobeto sentitzen dira.

Bide honetan ibiltzeak oroitzapen politak dakarzkie eta tarteka atseden hartzeko leku egokirik ere badute gainera

Tamalez, azken bolada honetan trafikoa nabarmen gehitu da inguru honetan.

Itzuli dira. Orain gogoko dutena irakurri edo ikusiko dute telebistan.

Aurkezlea

Gure gaurko istorioa, aurreko egunetakoak bezalaxe, ondo bukatu da. Baina ezin ote zuen agian bestela bukatu? Modu tamalgarriago batean, alegia?

Zergatik? Begoña eta Manolo istripuren bat izateko arriskuan egon al dira, ba? Noiz baina? Zergatik?

Ezagun egiten al zaizue egoera hauetakoren bat? Ba al duzue antzerako esperientziarik?

Galdera hauentzako erantzunen bila utziko zaituztegu. Beste bat arte.

5.2.7 7 bideoa _ Batzuetan, autoak espaloitik joaten dira

Aurkezlea

Hiri eta herrietako trafikoa antolatzea gero eta nekezagoa da. Oinez ibiltzen garenok auto, autobus, kamioi eta taxien erasoa jasaten ari garela sentitu ohi dugu

Oinezkoak, ordea, badugu trafikoan eraginik eta sarritan istripuren bat jasateko arriskuan izaten gara edota bestela guk sufritu ez arren, istripu horietakoren bat eragiteko puntuan.

Beste behin gure kamerak erreportajea sail honen protagonista diren Manolo eta Begoñaren bizitzara hurbildu dira.

Narrazioa

Egunkaria egunero irakurtzeko ohitura du Manolok. Gaur ez dago oso pozik.

Gobernuak pentsioekin zer egin nahi duen ikusi eta eurentzako kalterik ekarri ez arren, ez dio batere susmo onik hartzen pentsioak gora eta behera ibiltze horri. Hortik ez baita gauza onik aterako bere ustez.

Begoña ez da gai horrekin hainbeste arduratzen. Bizitza guztia lanean eman eta gero, pentsioa murriztea besterik ez zitzaigun falta Ezta pentsatu ere.

Gaur gainera, pentsioa kobratzera aurrezki kutxara joateko eguna da.

Gaur egun eragiketak elektronikoki egin arren, gehientsuenei pentsioa zuzen kontuan sartu dietela ikustea gustatzen zaie. Gainera, hilabetea pasatzeko lain atera beharra dago.

Oraingoz pentsioak bere horretan jarraitzen duela ikusi du Manolok.

Eta bueltan etxera. Lasai-lasai paseotxo eman, dendak ikusi eta alkoholik gabeko aperitibo bat ere patxadan hartuz.

Aurkezlea

Manolo eta Begoñak pasatu dituzten egoera zenbaitetan pentsatu eta eurak arriskuan izan diren une horietaz gogoeta egitera gonbidatu nahi zaituztegu.

Zeintzuk izan dira egoera arriskuatsu horiek?

Zer gerta zitekeen?

Zein neurri hartu behar zituzten?

Zortean konfiantza gehiegitxo izan al dute?

Baietz zuen erantzunak zuzenak izan. Hurrengo batean ere gurekin izan.

5.2.8 8. bideoa _ Gidatzerakoan, ez distraitu

Aurkezlea

Orain arterakoan oinezkoaren ikuspegitik sor daitezkeen trafiko arazoak aurkeztu dizkizuegu saio honetan.

Gaurkoan, trafikoa autoaren barrutik nola ikusten den aztertu nahi dugu. Diotenez, autora sartu ahala, pixka bat eraldatu egiten gara. Oinezkoek traba egiten digute, presaka ibiltzen gara, ez dugu pazientziarik izaten

Gaur ere Manolo eta Begoñarengana joko dugu eta euren asteroko zeregin batean harrapatuko ditugu, udal kiroldegian. Gorputzaldia mantentzeko gimnasia egiten ari direla.

Narrazioa

Hona hemen bikotea. Kirola egitea euren bizi kalitatearen oinarrietako bat da. Arinago egoten eta eurak bakarrik baliatzen laguntzen die eta, bide batez, euren etxetik irten eta lagun berriak egiteko aukera ere eskaintzen die.

Goiz erdian irten dira etxetik eta ohi duten ez bezala, autoz. Bi arrazoiengatik: lehenik eta behin Manolok autoa ondo zaintzen duelako eta badaki komenigarria dela noizean behin mugitzea.

Gainera, ez dago ondo datorkien autobus zerbitzurik.

Manolo gidari ona izan da beti eta halaxe jarraitzen du. Begirunez zaintzen ditu trafiko arauak eta baita oinezkoak ere

Ez du lehen adina korritzen nahiz eta ez den sekula izan azkarregi ibiltzen diren horietakoa.

Bidean zirela, poltsetako bat lurrera erori da. Manolo instant batean jiratu eta trebezia handiz poltsa eserlekuan jarri du eskuineko eskuaz, gauzak bere lekuan egotea gustatzen baitzaio.

Etixerakoan iloba txikia jaso eta etxean edukiko zutela hitzeman diote errainari hura bila pasatu bitartean.

Esan eta egin. Neskatilak aurrean joan nahi izaten du eta Begoña eta Manolok, hari ezetzik esaten ez dakiten arren, oraingo honetan ez dute ametorik eman eta atzean eseri dute txikia, berak eta guztiok dakizkigun arrazoiengatik.

Etixerako bidean kontu kontari datoz. Neskatzak beti du esateko gauza berriren bat eta aiton-amonak gustura egoten dira hari entzuten.

Aurkezlea

Orain, beti bezala, zuei dagokizue lana egitea.

Arrisku-aldirik ikusi edo antzeman al duzue?

Gidari ona dela esan arren, ardura gabe jokatu al du Manolok unerren batean?

Zein ondorio ekar zitzaketen bere arduragabekeria horiek?

Zuek zer egingo zenuketek?

Badakizue, argi ibili eta hurrengora arte.

5.2.9 9. bideoa _ Kontuz autoan sartu eta irtetea

Aurkezlea

Egunon. Trafiko arazoak autoa martxan dagoenean bakarrik gertatzen direla uste du jende askok. Gidatzen ari garenean elkar ez jotzea, bidetik ez irtetea edota inor ez harrapatzea izaten dira gure ardura nagusiak.

Beraz, oso erne ibili behar dugu autoa hartu eta leku batetik bestera joan behar dugunean, eta ez bakarrik gugatik edo gurekin batera doazenengatik, istripu batean tarteko gertatu daitekeen edonorengatik baizik.

Narrazioa

Hamaika begiz gidatzen duten horietakoa da Manu, Manolo eta Begoñaren semea. Noizean behin, familia guztia elkartu eta hiritik kanpora joaten dira.

Manuren autoan joaten dira beti, handiagoa baita.

Gertakariz beteriko egunak dira, deskubritzeko gauza interesgarri asko topatzen baitituzte, batez ere, Begoña eta Manoloren iloba txikiek Aiton-amonek atseginez eta pazientzia handiz azaltzen dieten hurrei atentziora ematen dien guztia.

Etixerako bidea joanekoa baino lasaiagoa da. Aurrena, Manolo eta Begoñarenetik pasatuko dira, biak atarian bertan uzteko.

Aurkezlea

Seguruenik, gure erreportajen zehar, bide segurtasunaren aldetik oso egokiak ez diren egoera zenbait ikusiko zenuten.

Zeintzuk dira egoera horiek?

Nola jokatu behar ote zuten gure pertsonaiek zuzen ibiltzekotan?

Erantzunak zuen esku utziko ditugu. Badakizue, trafikoa guztion erantzukizuna da. Eskerrik asko eta hurrengora arte.

5.2.10 10. bideoa _ Botikarik ez, gidatuz gero

Aurkezlea

Kaixo, zuekin gaituzue, berriz ere. Gaur gidatu eta oinez ibiltzerakoan gure portaeran eragina duten alderdi batzuk aztertu nahi ditugu.

Aldagai horietako bat gu geu tarteko izaten garen trafiko egoerak analizatzeko gaitasuna da. Izan ere, gidatzen ari garenean edota oinez gabiltzanean, besteak zertan dabiltzan kontuan izateaz gain, gure egoeraz jabetzen jakin behar dugu. Trafiko dentsitatea, logura, ikusmena, erreflexuak, autoaren egoera...

Narrazioa

Begoña eta Manolo osasun onekoak dira eta ez da harritzekoa, gimnasia pittin bat egiten dute, sarritan paseatu, otorduetan zaindu euren adina kontuan izanik, nahikoa bizitza aktiboa egiten dute

Baina tarteka, makalaldiren bat agertzen da, ordea. Oraingo honetan, txertoa hartu arren, Manolok gripea harrapatu du. Betiko egonezinaz gain, sekulako buruko mina eragiten duen gripea, gainera.

Begoña eta Manolo sendagilearengana joan dira gaitzak ondorio kaltegarriagorik ekarri baino lehen.

Osakidetzaaren anbulatorioan betikoa esan diote, pazientzia ohean egon eta ez arriskatzeko. Buruko mina kentzeko, berriz, analgesiko bat errezetatu diote, neurri-neurrian erabiltzeko gomendioarekin.

Manolok aurreneko dosia botika-dendaren ondoan dagoen kafetegian bertan hartu du.

Egia esan, badirudi botikak mesede egin diola eta Manolo berehala hasi da hobera egiten. Askoz hobeto dago baina sendagileak esan bezala, harrokeriarik ez eta ohera

Autoa ez dute urrun utzi. Hamar minutuan etxean izango dira.

Bidean Manolok stop bat egin behar izan du. Urrunean auto bat bazetorrela ikusi du baina irteteko lain denbora bazuela uste izan du. Pentsatu eta egin. Aurrera jo du.

Beste autoa gidatzen zuenak, moteldu egin behar izan du abiadura, eta gainera bozina jo du eta argiei eman.

Jendea erotuta ibiltzen dela pentsatu du Manolok, beti presaka. Beste autoko gidariak ez duela arrazoirik pentsatu du, izan ere, urrutitik ikusi baitu, arauak agindu bezala, stopean geratu ondoren, Manolo abiatu egin dela.

Gainerakoan batere arazorik gabe heldu da etxera. Manolok badaki zer datorkion. Bi edo hiru egun ohean eta pazientzia handia, gripe nekosoak alde egin arte.

Aurkezlea

Stopean Manoloren portaera egokia izan dela uste al duzue?

Manolok inolako arriskurik eragin al zezakeen beste unereren batean?

Beti bezala, erantzunak zuen esku utziko ditugu.

Oso garrantzitsua da denok beti gogoan izatea guztion zeregina dela trafikoaren baldintzak hobetzen ahalegintzea. Hala, beste batzuek, guk geuk edota gure ingurukoek ondorio kaltegarriak jasan ez ditzagun.

Erantzukizuna guztiona da. Agur, izan arduratsu eta arretaz ibili.

5.2.11 11. bideoa _ Errepasoa egiteko saioa

Aurkezlea

Egun on. Gaurkoa gure azken saioa denez, bota dizkizuegun galderentzako lortu dituzuen erantzun zenbait berrikusiko ditugu.

Trafikoan gauza askok du eragina eta huskeriarik txikiena nahikoa izaten da inork nahi izaten ez duen istripuren bat gertatzeko.

Istripuak sarritan autoak eta trafikoaren bideak egoera kaskarrean egoteak eragiten ditu.

Beste batzuetan, berriz, pertsonak, guk geuk. Izan ere, gure egoera fisikoa, adina, berezko izaera arduragabea, betiko presa edota beste hamaika arrazoiengatik, ez diogulako trafikoari behar adinako atentziorik eskaintzen.

Trafiko istripuak auto gidarien erantzukizuna izaten direla esatea, berriz, arinkeria hutsa litzateke.

Oinezkoak ere badugu zerikusirik istripuak ekiditerakoan.

Trafikoaren antzokian guztiok gara antzezle eta gehienok hiru paper izaten ditugu. Lehenik eta behin, zerbitzu publiko edo pribatuaren erabiltzaile gara.

Bigarren papera oso garrantzitsua da, oinezkoak ere bagara. Paper honetan oso ahulak garenez, kontu handiz eta erantzukizunez jokatu behar dugu. Gainera, gainontzekoek trafiko arauak halako begirunerik ez izatea ere gogoan izan beharko dugu beti.

Gidatzerakoan ere aktore lana egin behar. Hauxe da hirugarren papera. Nola bete genezake ganoraz? Ba, guk geuk eskertzen dugun portaera erakutsiz gainontzeko oinezko eta gidariekin.

Ia gehienok egiten ditugun hiru paperok ondo betetzeko irizpide batzuk argi edukitzea komeni da.

Autobusetan bidaiatzerakoan, garraio publikoaren aldeko ekintza bat egiten dugu, ingurugiroa zaindu eta hiriak erosoago egiten laguntzen dugu. Baina zenbait arau izan behar ditugu kontuan gure bidaia atseginagoa izateko eta istripurik ez izateko.

Lehen araua, autobusaren bila abiatu gabe, eta espaloitik jaitsi gabe zain egotea da. Autobusak aparkatzeko behar duen lekua hartu arte itxaroten jakin behar dugu. Bestela kolperen bat jasotzeko arriskuan izango gara. Beti presaka ibiltze hori ez da batere aholku ona.

Baina ez da hori autobusak dakarren arrisku bakarra. Klean geratuta dagoen autobusaren aurretik kalea zeharkatzea ere arriskutsua da, ikusmen eskasa egoten da eta ezusteko galantak jasan genitzake.

Beti ere autobusa ondo geratu arte itxaron beharko dugu igo nahiz jaisteko.

Eta azken gomendio bat, ateekin ere kontuz. Bat-batean zabal daitezke eta irekitzeko mekanismoak oreka galarazi diezaguke.

Oreka aipatu dugunez, ez da autobusa ekilibrioak egiten ibiltzeko lekurik aproposena. Zutik joatea tokatuz gero, autobusak eskaintzen digun heldulekuren bati ondo eutsita joatea komeni da.

Azter dezagun orain gure antzezlaneko bigarren papera, oinezkoarena alegia. Trafikoaren aldetik ahulenak geu garenez, arreta areagotu egin beharko dugu istripurik ez izatearren.

Jakin badakigu pasabideetan edo zebrabideetan autoek bide eman behar digutela

Kontuan izan beharrekoa da, ordea, gidari zenbaitek ez dutela guk adinako begirunerik, ardura gabe gidatzen dutela edota, presaren presaz, bost axola zaiela inguruan nor dabilen. Horregatik, babesturiko pasabidean egon arren, bidea zeharkatu aurretik, bi aldeetara begiratu beharko dugu, eta autorik badator, gelditu arte itxaron.

Irizpide bera erabiliko dugu semaforoek arautzen dituzten pasabideetan ere. Oinezkoentzat berdean ipini ez bada, ez gara pasatzen hasiko, berehala jarriko dela jakin arren.

Abiatu aurretik semaforoa dir-dir ikusten badugu, zeharkatzeko larri ibili beharko dugunez, hobe zain geratzea.

Beti markatutako pasabideak erabili behar dira, zebrabidez zein semaforoz arauturikoak.

Inoiz, hauetarik hurbil gertatu ez eta bidea seinalerik gabeko lekuren batetik zeharkatzea erabakitzen badugu, irizpide hauek kontuan izan beharko ditugu. Beharrean bagaude, inguruan dagoen norbaiti laguntza eskatu eta zeharkatu aurretik eskuin eta ezkerrera ondo begiratu, autorik ez datorrela ziurtatzeko.

Oinezkoentzako beste ohar bat: batzuetan, oso erosoak izan ez arren, beti espaloitik ibili behar da. Espaloiak dauden tokietan, bidetik ibiltzea istripuaren aldeko apustua egitea da.

Eta espaloirik egon ez eta bidetik ibili behar denean, ba, beti-beti ezker aldetik, datozen autoak aurrez aurre ikusiz.

Itzul gaitezen, ordea, espaloietara, kontuz ibiliz gero, horiexek baitira gehienetan seguruenak.

Arreta handiz ibili behar dugu garaje eta tailerretako irteeretan, ez baita erraza izaten espaloitik inor datorren ikustea.

Gauza bera gertatzen da aparkatu edo bigarren ilaran dauden auto artetik kalea zeharkatzera arriskatzeko garenean.

Guk geuk ere inoiz autoa hartu eta bidaiarik egiten dugu. Ibilalditxo motza egin arren, badakigu segurtasun uhala beti ipini behar dugula, oso mesedagarri gerta dakiguke eta.

Uhalarena bezain garrantzitsua da, ordea, atentziorik ez galtzea, eta beti bidean dagoen trafikoari begira egotea. Istripurik gabeko urte asko alferrik galtzen dira ustegaberik txikienean.

Nekatuta edo loguraz bagaude arreta errazago gal genezake.

Neurri batean erreflexuak gutxitu edota logura eragiten duen botikarik hartutakoan ez dugu autorik erabiliko.

Denok argi dakigu trafiko seinaleei jaramon egin behar zaiela agindutakoa zintzo betez.

Autoan sartu eta irteterakoan ere kontuz ibili behar dugu. Ateak irekitzerakoan, atzetik inor ez datorrela ziurtatu behar dugu. Ahal dela, espaloiko aldeko ateetatik irtetea komeni da.

Baina bideko alderditik irtetea ezinbestekoa denean, autorik ez datorren ondo begiratu beharko dugu.

Hauxe da, ba, guztia. Trafikoan bakoitzak bere papera hartu behar duenean, ez zaigu gaizki etorriko beti erne, arduratsu eta besteekiko begirunez jokatzeko.

Gero eta azkarrago dabilen gizarte honetan, atentzioa, ardura eta begirunea ez daude inoiz lekuz kanpo.

Ez gu eta ez inguruko inor kaltetzeko ahalegin guztia egin behar dugu.

Ziur gaude zuen eguneroko jardueran saiatuko zaretela helburu hori lortzen.



Bideoen eduki nagusiak

1 BIDEOA

4.2. atalean azaldu dugu bideo bakoitzean zein eduki lantzen edo agertzen den. Atal honetan berriro gogoratuko ditugu haietako batzuk baina haiekin batera bideetako segurtasunarekin, berez, zerikusirik ez duten batzuk jorratuko ditugu, heziketarako elementuak eskaintzeaz gainera, heziketa lanean baliagarriak izan baitaitezke.

1 bideoan agertzen direnak honako hauek dira:

- _ Arriskutsua da espaloitik jaitsi eta autobusari bidera irtetea.
- _ Geldi dagoen autobusaren aurre aldetik bidea zeharkatzean istripu larri bat izateko arriskua dago. Gauza bera esan daiteke ikusmena galarazten duen beste edozein ibilgailuren aurretik bidea gurutzatzen dugunean.

Adinekoentzat esanguratsuak izan daitezkeen balore batzuekin lotuta dauden edukiak ere sartu ditugu eta lan-saioetan komentatu egin daitezke, batez ere, partaideek hori aztertzeko gogoia dutela antzemanaz gero:

- _ Norbere itxura zaintzea garrantzitsua izaten da adin guztietan.
- _ Familiarekin bizi ez arren, harremanak era egokian mantentzea onuragarria da familia osoarentzat.
- _ Bizkortasun handia duten pertsonak mugitzeko arazoak dituztenei lagundu behar diete (Manolok, esate baterako, Begoñari autobusera igotzen laguntzen dio).
- _ Adeitasunaren garaiak aspaldi joanak diruditen arren, arazoak dituzten pertsonen erlekua uztea gizalegea da.

2. BIDEOA

- _ Autobusa geratu aurretik, ateko mailak ireki direlako, hara igo edo handik jaistea oso arriskutsua da; are gehiago adineko pertsonentzat eta bizkortasuna galtuta daukatenentzat.
- _ Ez bidaiatu autobusen ateen ondoan. Atseginak ez diren ezustekoak eragin ditzakete.

3. BIDEOA

- _ Errepideak eta kaleak seinalaturiko pasabideetatik zeharkatzen ditugunean ere, garrantzitsua da bi aldeetara begiratzea eta beste ibilgailurik ez datorrela ziurtatzea; eta ibilgiluren bat datorrela, geratzeko itxura egiten badu, erabat geratu arte itxarotea. Arrazoia edukitzea edo arauak oinezkoaren aldekoak izatea ez da nahikoa.

Beste eduki batzuk:

- _ Ona da adiskidetasunari eustea.
- _ Interesgarria da bidaiatu eta adiskideekin planak egitea, nahiz eta, batzuetan, norberaren baidintza fisikoak bereziak direlako, lehen bezain erosoak izan ez.
- _ Aisialdirako dauden aukerak aztertu eta alderatu egin behar dira: kalitatearen eta prezioaren artean duten erlazioa, zein baldintza eskaintzen duten kontratuan, publizitatean ariketa garrantzitsuak dira gero ezustekorik ez hartzeko.

4. BIDEOA

- _ Semaforoak berde daudenean bakarrik gurutzatu bidea.
- _ Semaforo batean, pasatzeko baimena ematen duen argia dir-dirka hasten denean, ez bidea gurutzatzen hasi.
- _ Ez da nahikoa izaten arauak betetzea. Gainontzekoek egin ditzaketen arau-hausteak ere kontuan hartu behar dira.
- _ Kontu handiz ibili eguraldi eskasa dagoenean.

Beste eduki batzuk:

- _ Norbere zaletasunei eusteko edo lantxoak egiteko lagunekin batzea, ikuspuntu guztietatik da interesgarria.
- _ Ajeak gorabehera, adoreari eusten ahalegindu behar dugu, eta aurretik pentsaturiko aktibitateetan, etsi gabe, parte hartu.
- _ Oinez ibiltzea ariketa osasuntsua da.

5. BIDEOA

- _ Bidea edo kalea behar den moduan gurutzatzeko aukera galerazten duen eragozpenen bat edukiz gero, funtsezkoa da laguntza eskatzea.

Beste eduki batzuk:

- _ Garrantzitsua da irakurketaren moduko zaletasunei eustea. Ikusmena eskastuta edukiz gero, beste lagun baten bidez, edo audio-liburuen bidez eutsi diezaiokegu irakurketari.
- _ Janarien prestaketa galdu behar ez den zaletasuna da (edo pertsonaren arabera, berreskuratu edo estreinatu behar den ohitura).
- _ Garrantzitsua da gizonezkoek etxeko zereginetan ardurak hartzea. Orain badago astia, ez dago aitzakiarik etxeko lanik ez egiteko. Hasiera on bat erosketak elkarrekin egitea izan daiteke.
- _ Eguneroko eta asteroko janeurrian frutak eta barazkiak ugari sartzea osasunari eusteko modua da.

6. BIDEOA

- _ Beti espaloitik ibiliko gara, nahiz eta gure bidean oztopoak agertu; pazientzia izatea komeni da, edo gizalegez pasatzeko baimena eskatzea.
- _ Espaloirik ez denean, ezkerretik joan behar da eta adi aurrez aurre datozkigun ibilgailuak ondo ikusteko.

Beste eduki batzuk:

- _ Osasunari eusteko, behar-beharrezkoa da, batetik, frutak, barazkiak eta esnekiak hartzea eta, bestetik, gorputza bortxatu gabe kirola egitea.
- _ Oinez ibiltzea edozeinentzat da komenigarria. Are gehiago adinekoentzat.

7 BIDEOA

- _ Espaloitik goazenean, kontuz ibili behar dugu garaje eta tailer mekanikoen ateen parean.
- _ Ez sekula bidea gurutzatu espaloitik galtzadara aparkatuta dauden ibilgailuen artetik igarota. Arriskua are handiagoa da aparkatuta dauden autoak "bi ilataran" daudenean.

Beste eduki batzuk:

- _ Prentsa irakurtzea eta aktualitatearen berri izatea buru-ariketa komenigarria da eta, orobat, aisialdiaz baliatzeko era egokia.
- _ Ez da ona alkohola sarri hartzea. Alkohola hartzea salbuespena izan behar da.

8. BIDEOA

- _ Ibilgailuan beti jantzi segurtasun uhala.
- _ Gidatzen ari garela, adi-adi joan behar dugu beti.

Beste eduki batzuk:

- _ Komenigarria da mantentze-gimnasia apur bat egitea, adin bakoitzerako egokituta.
- _ Ahal dela, beti, garraio publiko eta kolektiboak erabili.

9. BIDEOA

- _ Autoan beti espaloiaaren aldean dauden ateetatik egingo dugu sartu-irtena (gidariari espaloia beste aldean geratzen zaionean izan ezik).
- _ Zirkulazioa arautzeko jarritako seinaleak beti errespetatuko ditugu.

Beste eduki batzuk:

- _ Familiarekin batera hiritik kanpo joatea ariketa ona izaten da.
- _ Halaber, ona izaten da hurrekin solas egitea, baina gogaikarriak izan gabe.

10. BIDEOA

- _ Arriskutsua da gidatu behar denean botikak hartzea.
- _ Bide batetik beste batera sartzen garenean, gure ibilgailuaren ezaugarriak zeintzuk diren eta beste bidetik datozen ibilgailuak zein abiaduratan datozen neurtzen jakin behar dugu.
- _ Beti jantziko dugu segurtasun uhala.

Beste eduki batzuk:

- _ Botikak norberaren kontura hartzea arriskutsua da.
- _ Osasun etxera, beharrezkoa denean baino ez gara joango. Zer egin ez dakigulako kontsultara joatea, ez da denbora emateko modua.
- _ Norberaren eragozpenak onartu egin behar dira, eta ez besteei egotzi eragozpen horiek dakartzaten ondorioak.



Beste ekintza osagarri batzuk

Material hauetan proposaturiko ariketez gainera, beste ariketa osagarri batzuk ere antola daitezke. Hona hemen zenbait ideia:

- _ Lehen saioan inkesta bat eman diezaiekegu, euren erantzunen bidez, zirkulazioaren egoeraz eta adinekoek zirkulazioan duten zereginaz adinekoek eurek zer pentsatzen duten ikusteko. Aurretiazko ebaluazioa egiteko balio dezake.
- _ Azkeneko saioaren amaieran (edo hasieran) berriro eman diezaiekegu inkesta berbera. Azken ebaluazioa egiteko balio dezake.
- _ Gonbitea egin diezaiekegu taldeka, zirkulazioaren kalitatea arautzeko eta zaintzeko ardura duen agintariren bati idazteko. Idatzi horretan adinekoen mesederako izango diren iradokizunak jaso ditzakete.
- _ Bibliografian liburu bat aipatzen dugu Hirugarren Adina eta Zirkulazioa lotzen dituzten istorioak kontatzen dituenak. Istorio horietakoren bat interesgarritzat joz gero, fotokopiatu egin daiteke, eta saioen osagarri gisa planteaturiko irakurketa bat egin (kontuan izan egile-eskubideak errespetatu egin behar direla eta baimena eskatu argitaletxeari).
- _ Taldea adoretsua bada, eta astiz ibiliz gero, publizitate kanpaina moduko bat proposa diezaiekegu, zirkulazioaren arloan adinekoek dituzten eskubide eta betebeharrak zabaltzeko.
- _ Gutunen bat idatzi eta egunkarietara bidaltzea ere pentsatzeko kontua da.
- _ Udal irrati edo telebistaren bat eskura izanez gero, partaideetako batzuk gai horri buruzko monografikoren batean partehartzea -edo partehartze hori bultzatzea- interesgarria izan daiteke.



Material osagarriak

Jarraian, zenbait material bildu dugu hezitzaileei informazioa eskaintzeko. Material hauetako batzuk lantaldeei banatzeko modukoak dira, hala iritziz gero.

ADINEKOEN ARAZOAK GIDATZEKO ORDUAN

72%	► Ikusteko arazoak	► Besteen argazkiekin itsualdia eragiteko arriskua handiagoa da. ► Distantziak behar den moduan kalkulatzeko eragozpenak. ► Seinaleak behar den moduan ikusteko eragozpenak.
%57	► Entzuteko arazoak	► Soinuak entzuteko eta zerk eragin dituen antzemateko eragozpenak.
%23	► Mugitzeko arazoak	► Nekea eta logura azkarrago agertzen dira. Indar berritzeko denbora gehiago behar da. ► Ezustekoen aurrean egoki erantzuteko trebetasun gutxiago dago.

JAKINGARRIAK

- _ Auto istripuetan hiltzen direnen %20, 64 urtetik gorako pertsonak dira. Zaurituta geratzen direnen artean, berriz, %6 besterik ez da adin horretakoa.
- _ Auto istripuek ondorio latzagoak eragiten dituzte adinekoen artean gainerako hiritarren artean baino.
- _ Adineko jendeak, gidatzen ari denean, oso istripu gutxi eragiten ditu (%2a besterik ez) baina oinez doazenean, lau istripuk bat beraiek pairatzen dute.
- _ Adinekoek astiro gidatzen dute, dudaz beteriko mugimenduak egiten dituzte eta abiadura handiko bideetan, ia beti okerreko mugimenduak egiten dituzte.
- _ Kanpoko faktoreei erantzuteko denbora asko behar dute.
- _ Ikusmen eskasa dute, batez ere gauez, eta erantzuteko gaitasun murriztua (denbora asko hartzen dute) besteen argiekin itsututa geratzen direnean.
- _ Malgutasunik ez dute eta hargatik espero ez ditugun mugimenduak egiten dituzte.
- _ Askotan hausten dituzte zirkulazio-arauak, batez ere, biraketetan, bide edo erreiak aldatzerakoan, eta abar

ADINEKOEK GIDATU BEHAR DUTENEAN SEGURTASUNA AREAGOTZEKO ZENBAIT PROPOSAMEN

- _ Atzerako ispilu handiagoak erabili
- _ Artritisa eta artikulazioetako beste zenbait arazo dituztenentzako egokituriko segurtasun-uhalak erabili.
- _ Artritisak jota dauden pertsonen erraztasunerako, sekzio txikiko arkoa duten bolanteak erabili.
- _ Balazta-pedal handiagoak erabili.
- _ Aginte-mahaian, tamaina eta kontraste handiko tresnak erabili.

INKESTA EREDUA

Jarraian, inkesta bat jarri dugu lehenengo eta azkenengo saioetan erabiltzeko eredutzat proposatzen duguna.

→ Zer deritzozu zure hiriko zirkulazioari?

Nola-halakoa ☐

Txarra ☐

Oso txarra ☐

→ Zer aldatuko zenuke?

→ Auto-gidariak errespetatzen al dituzte oinezkoak?

Bai ☐

Ez ☐

Batzuk bai ☐

Askok bai ☐

→ Beti erabiltzen al dituzu zebrabideak bidea zeharkatzeko?

Bai ☐

Ez ☐

→ Zer da, oinezkoa zarenean, gehien gogaitzen zaituena?

→ Semaforoa berde dagoen bitartean bidea zeharkatzeko denbora izaten al duzu beti?

Bai, nahikoa da ☐

Ez, gehiago iraun beharko luke ☐

→ Eskatu al diozu sekula laguntzarik Udaltzaingoari, Ertzaintzari ala beste inori?

Ez, inoiz ez ☐

Bai, behin edo behin ☐

→ Zein garraiobide erabili ohi duzu?

→ Zergatik?

Bidaiaari gazteenek uzten al dizute jarlekua?

→ Ez ☐

Bai ☐

Batzutan ☐

☐

→ Erraza al da autobusetara igotzea?

Ez, eskailerak oso goian daude ☐

Bai ☐


Berrietara bai ☐

→ Bidea gurutzatzen duzunean, ze arazo sortzen zaizkizu?

→ ...?



Bibliografia



Bazo, M.T. (1991). "El estatus familiar y la salud, elementos clave en la institucionalización de las personas ancianas (primera parte)" *Revista de Gerontología*, 1 Barcelona. Junio.

Belsky, J. K. (1996). *Psicología del envejecimiento*. Barcelona: Masson.

Buendía, J. (1994). *Envejecimiento y psicología de la salud*. Madrid. Siglo XXI.

Buendía, J. (Comp) (1994). *Envejecimiento y psicología de la salud*. Madrid. Siglo XXI.

Bueno, B., Vega, J.L. y otros (1993). "Peatones mayores y seguridad vial: dificultades ambientales y estrategias de afrontamiento" *Rev. Psicología de la Educación*.

Canes, C. (1991). *Evolución del perfil del anciano. Una visión de futuro. El envejecimiento de la sociedad*. Asociación de Economía de la Salud. Barcelona.

Castro, N. (1996). *Sistema comunitario de información sobre accidentes en el hogar y del tiempo libre. Informe anual*. Madrid: Instituto Nacional de Consumo.

Cires (1992). "Tercera edad. Centro de investigaciones sobre la realidad social" *Boletín mes de mayo*.

Dirección General de Tráfico (1996). *"El ritmo de la vida"* Madrid: D.G.T.

Dirección General de Tráfico (1999). *"La esencia del tango"* Madrid: D.G.T.

Dirección General de Tráfico (2000). *"Cuide sus pasos"* Madrid: D.G.T.

Dirección General de Tráfico (2000). *"Relatos del concurso para mayores "letras para el camino, ediciones 2000-2003"* Madrid: D.G.T.

Dirección General de Tráfico (2003). *"Medicamentos"* Madrid: D.G.T.

Fernández Ballesteros, R. (1991). *Evaluación e intervención psicológica en la vejez*. Barcelona: Martínez Roca.

Fernández Ballesteros et al. (1992). *Evaluación e intervención psicológica de la vejez*. Barcelona: Martínez Roca.

García, J.F., Peinado, C.A. y Espejo, B. (1994). "Factores de riesgo y consecuencias de las caídas en los residentes de un Centro Geriátrico Asistido" *Rev. Esp. Geriatr. y Gerontología*, 29, 1 (25-30)

Izal, M^a y Fernández Ballesteros (1990). "Modelos ambientales sobre la vejez" *Anales de Psicología*, 6, (181-198).

Lehr, U. (1988). *Psicología de la senectud*. Barcelona: Herder.

Martínez Fornes (1991). *Envejecer en el año 2.000*. Madrid: Popular.

Montoro, L., Carbonell, E., Sanmartín, J. y Tortosa, F. (1995). *Seguridad Vial: Del factor humano a las nuevas tecnologías*. Madrid: Síntesis.

Montoro, L. y Honrubia, M.L. (1995). "Psicología y seguridad vial (número monográfico)" *Anuario de Psicología*. Barcelona: Fontalba.

Moragas Moragas, R. (1991). *Gerontología Social. Envejecimiento y calidad de vida*. Barcelona: Herder.

Moragas, R. (1991). *Gerontología social*. Barcelona: Herder.

Navalón y otros (1995). *Fomento de las relaciones intergeneracionales en la modalidad de vivienda compartida entre jóvenes universitarios y personas de edad avanzada*. Madrid. Fundación Caja Madrid.

Nunes, L.M. (1984). *Psicología de la seguridad vial*. Madrid: Ministerio del Interior, Dirección General de Tráfico.

Pelechano, V. (1991). *Habilidades interpersonales en ancianos*. Valencia: Alfaplús.

Puig de la Bellacas, R. (1990). *Accesibilidad física y social al medio urbanizado. Incorporación social de colectivos marginados*. Madrid: ACEBO.

Sáez Narro, N., Rubio, R. y Dosil, A. (1996). *Tratado de Psicogerontología*. Valencia: Promolibro.

Sánchez Caro, J. Y Ramos, F. (1992). *La vejez y sus mitos*. Barcelona: Salvat.

Sánchez Vera, P. (Eds) (1993). *Sociedad y población anciana. Murcia*. Servicio de Publicaciones de la Universidad de Murcia.